



Trantsizio energetikoa, meatzeen hedapena eta gatazka ekosozialak Amazonian

Javier Arellano-Yanguas
María del Pilar Bernal-Gómez
(Koords.)



Deusto

Centro de Ética Aplicada
Etika Aplikatuko Zentroa



alboan

ONG - JESUITA - FUNDAZIOA



RIMISP

Centro Latinoamericano
para el Desarrollo Rural

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak
1 posta kutxa - 48080 Bilbao
e-mail: publicaciones@deusto.es
ISBN: 978-84-1325-187-5

Edukia

Akronimoak	5
Esker onak	7
Sarrera	9
1. zatia: Meatzaritzako proiektu berriak Amazonian: bizilagunen eta haien ingurunearen gaineko inpaktuak <i>Javier Arellano-Yanguas, María del Pilar Bernal-Gómez eta Sergio Caballero</i>	15
1. Sarrera	15
2. Zer dakigu meatzaritzak Amazonian dituen inpaktu sozial eta politikoei buruz?	19
2.1. Meatzaritzako proiektuek landa ingurunean dituzten inpaktu sozial eta politikoak.	20
2.2. Meatzaritzako eragiketen inpaktuan eragina duten Amazoniaren berezko ezaugarriak	23
3. Compañía Minera Afrodita eta indigenen erresistentzia: garaipen baten kostua.	26
4. Libero Cobre enpresaren sarrera Mocoan (Putumayo): narratiba eta jardunbide tradizional berriak	34
5. Ondorioak.	42

2. zatia: Amazoniako meatze eragiketei aurre egiteko estrategiak:	
Mocoa proiektuaren kasua (Kolonbia)	
<i>Asier Martinez de Bringa eta Gorka Urrutia</i>	51
1. Erresistentziaren problematikaren testuingurua	51
2. Kolonbiako Amazonian indigenen lurralde eskubideak indartzearen garrantzia	54
2.1. Tutoretza akzioa Justizia Gorte Gorenean (STC-4360, 2018)	60
2.2. 2018ko STC-4360 epaiaren mugak	61
2.3. Indigenen bizi planek erresistentzia estrategia gisa duten garrantzia	63
3. Libero Cobre enpresak Mocoan duen ekimenari emandako erantzun soziala	65
3.1. Mocoako meatze ekimenak	68
3.2. Mocoa proiektuko erauzketa ekimenen aurkako dinamika eta erantzun sozialak	71
4. Ondorioak	77
Ondorioak	81

Akronimoak

AATI	Asociaciones de Autoridades Tradicionales Indígenas, Agintari Tradizional Indigenen Elkarteak
AIDSESP	Asociación Interétnica de Desarrollo de la Selva Peruana, Peruko Oihanaren Garapenerako Etnien arteko Elkarteak
CAH	Consejo Aguaruna y Huambisa, Aguarunen eta Huambisaren Kontseilua
CMA	Compañía Minera Antamina, Antamina Meatzari Kompania
AW Batzorde Berezia	Comisión Especial de Unificación de Organizaciones de base indígenas por la defensa territorial de Condorcanqui e Imaza, Condorcanqui eta Imaza lurraldeen defentsaren aldeko oinarritzko erakunde indigenak batzeko Batzorde Berezia
CORPOAMAZONIA	Corporación Autónoma Regional para el Desarrollo Sostenible del Sur de la Amazonia, Amazoniako Hegoaldeko Garapen Jasangarrirako Eskualdeko Korporazio Autonomoa
LD	Legegintzako Dekretua
ENP	Enpresak
EST	Estatua eta erakunde publikoak
ETI	Entidades Territoriales Indígenas, Lurralde Entitate Indigenak
FECOHRSA	Federación de Comunidades Huambisas del Río Santiago, Santiago Ibaiko Huambisa Komunitateen Federazioa

IBC	Instituto para el Bien Común, Guztien Onerako Institutua
IDL	Instituto de Defensa Legal, Lege Defentsarako Institutua
INRENA	Instituto Nacional de Recursos Naturales, Baliabide Naturalen Institutu Nazionala
JAC	Juntas de Acción Comunal, Ekintza Komunaleko Batzordeak
LOOT	Ley Orgánica de Ordenamiento Territorial, Lurralde Antolamenduaren Lege Organikoa
OCAAM	Organización de Comunidades Aguarunas del Alto Marañón, Marañón Garaiko Aguaruna Komunitateen Erakundea
ODECINAC	Organización de Desarrollo de las Comunidades Indígenas Numpatkaim y Alto Comaina, Numpatkaim eta Comaina Garaiko Komunitate Indigenen Garapenerako Erakundea
ODECOFROC	Organización de Desarrollo de las Comunidades Fronterizas del Cenepa, Cenepa Ibaiaren Mugako Komunitateen Garapenerako Erakundea
LANE	Lanaren Nazioarteko Erakundea
OSINERGMIN	Organismo Supervisor de la Inversión en Energía y Minería, Energia eta Meatzaritzako Inbertsioa Ikuskatzeko Erakundea
OZIP	Organización Zonal Indígena del Putumayo, Putumayoko Eremu Indigenen Erakundea
RIMISP	Centro Latinoamericano para el Desarrollo Rural, Landa Garapenerako Latinoamerikako Zentroa
GZ	Gizarte zibila
SINCHI	Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas, Ikerketa Zientifikoen Amazoniako Institutua
SLAPP	Strategic lawsuits against public participation, parte-hartze publikoaren aurkako auzi estrategikoa

Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiegu txosten honetan aztertutako bi kasuei buruzko ezagutza eta ikuskera egileekin partekatu zituzten pertsona eta erakunde guztiei. Mocoaren kasuan, gure eskerrik onena adierazi nahi diegu 2022ko otsailean landa-lanean gurekin hitz egitea onartu zuten gizarte erakunde, agintari eta enpresa ordezkari. Kondorraren mendikatearen kasuan, bihotzez eskertzen dugu SAIPERen eta, bereziki, Víctor Hugo Pacharen inplikazioa, kasuaren informazio esanguratsua eskuratu baitzigun txostenen bidez. Horien guztien ekarpenari esker, prozesu horiek beren lurraldeen eraldaketan duten konplexutasuna ulertu ahal izan dugu.

Sarrera

Amazonia munduko baso tropikalik handiena da. Ezagutzen diren landare eta animalia espezieen %10 baino gehiago bertan bizi dira. Planetako ur gezaren seiren bat bertako ibai eta erreketan behera doa. Amazoniako basoa klima aldaketaren aurkako motelgailua ere bada: klimaren aldakortasuna erregulatzen du eta 130 mila milioi tona karbono inguru biltegitratzen ditu, ia hamarkada bateko karbono dioxido isurketa globalen balioa (Science Panel for the Amazon, 2021).


Paradoxikoki, klima aldaketa maila globalean gelditzeko ahalegi-
nek eragin negatiboa izan dezakete Amazonian. Sistema energetiko
deskarbonizatu baterantz aurrera egiteko teknologiek mineralen erabi-
lera handia behar dute. Adibidez, berotze globala 2°-tik behera muga-
tzeko, 2050erako gutxienez 3.000 milioi tona mineral gehiago beharko
dira energia eolikoa, eguzki energia eta energia geotermikoa sortzeko
eta biltegitratzeko gaitasuna handitzeko. Adibidez, litioaren eta kobal-
toaren urteko eskaria %500 handituko da 2018ko mailekin alderatuta
(World Bank, 2020).

Mineral bakoitzetik beharko diren kantitateak erabiliko diren tek-
nologien nahasketaren araberakoak izango dira. Munduko Bankua-
ren txosten batek trantsizio prozesurako behar diren mineralen eskaria
aztertu du. Mineral bakoitza zein teknologiatan behar den eta eskaria
zenbatekoa den kontuan hartuta, zera ondorioztatu du: aluminioa, ko-

brea, nikela, molibdenoa, kromoa, manganesoa eta beruna material kritikoak direla, funtsezko teknologia askotan paper garrantzitsua betetzen dutelako (World Bank, 2020).

Adibidez, 3MW-ko (Europan 2019an instalatutakoen batez besteko potentzia) haize errota batek 335 tona altzairu, 1200 tona zementu, 4,87 tona kobrea, 3 tona aluminio eta zink eta molibdeno kopuru txikiak behar ditu (World Bank, 2020).

Hurrengo irudian, teknologia desberdinek dituzten mineral beharrak azaltzen dira.




Iturria: International Energy Agency.

1. IRUDIA

Elektrizitatea sortzeko teknologia desberdinek darabiltzaten mineralak (kilogramoak/potentzia instalatuko MWak)

Trantsizio energetikoak, elektrizitatea sortzeko teknologian ez ezik, elektrifikazioan aurrera egiteko erabiltzen diren tresnen teknologietan ere aldaketak egin beharra dakar. Sektorerik ukituenetako bat ibilgailuena da. Ibilgailu elektrikoak eraikitzea erronka handia da, eta hazkunde ekonomikoa bultzatzeko aukera paregabea. Haatik, eraldaketa teknologiko horrek mineralen kontsumoaren hazkunde nabarmena dakar. 2. irudian auto elektrikoaren eta ohiko autoen arteko mineralen kontsumoa alderatzen da. Aldeak oso nabarmenak dira.



Iturria: International Energy Agency.

2. IRUDIA

Auto elektrikoetan erabilitako mineralak (kg), ohiko autoekin alderatuta

Adibideek erakusten digute trantsizio energetikoak mineralen ustiapena nabarmen areagotzea dakarrela. Mineral horiek maiz etortzen dira Kongoko Errepublika Demokratikotik, Zimbabwetik, Perutik, Brasildik, Kolonbiatik edo Boliviatik. Azken bi hamarkadetan aztertu den bezala, erakunde ahulak dituzten herrialdeetan mineralen ustiapena areagotzeak arazo ekonomiko, politiko eta sozialak ekartzen ditu maiz (Bebbington *et al.*, 2018; Ross, 1999). Inpaktu negatibo horiek biderkatu egiten dira ekologikoki, sozialki eta instituzionalki hauskorrak diren lekuetan, hala nola Amazonian. Behar bezala gobernatzen ez bada, trantsizio energetikoak arazo horiek larriagotu ditzake. Gainera, «sarkrifizio eremu»en eskema errepika liteke: zenbait lurralde eta gizarte talde suntsitzea herrialde baten edo, kasu honetan, gizateriaren mesederako.¹

Amazoniako mineralen ustiapenak zuzeneko eta zeharkako eragina du ekosisteman. Alde batetik, meatzaritzak aldaketa fisikoak eragiten ditu erazketa jardueraren beraren ondorioz eta hura bideragarri

¹ Atwood, G.k (1975) lehen aldiz erabilia. The strip-mining of western coal. *Scientific American*, 233 (6), 23-29.

egiteko beharrezkoak diren hainbat azpiegitura eraikitzearen ondorioz; batez ere, errepideak, kolonizazioak eta deforestazioak ahalbidetzeko. Bestalde, meatzaritza jarduerak eragin handia du Amazoniako populazioen antolaketa moduetan, erakundeetan eta kulturatan. Aldaketa horiek, era berean, eragina dute ekosisteman. Monografia honen lehen kapituluak aztertzen den bezala, sistema naturalak hauskortu eta haien babes mekanismoak ahultzen dituzte maiz.

Amazoniako populazioak, beren ezaugarriak direla eta, bereziki kalteberak dira meatze ustiapenaren ondorio negatibo batzuen aurrean. Lehenik eta behin, meatzaritzak ekoizpena sektore bakar batean kontzentratzeko joera du. Horrek mendekotasun ekonomikoa areagotu eta Amazoniako testuinguru ekologikoaren berezko bizi baliabideen aniztasuna izugarri murrizten du. Bigarrenik, Amazoniako bizilagunak sakabanatuta bizi direnez eta komunikatzeko zailtasunak daudenez, zailagoa da informazioa zabaltea, eztabaidatzea, herritarrek beren lurraldeetako eraldaketetan modu loteslean parte hartzea eta, ondorioz, ekintza kolektiboa aurrera eramatea. Hortaz, Amazoniako biztanleek tresna gutxi dituzte meatzaritzako enpresekiko eta gobernuetikiko kontsulta, elkarrizketa eta/edo negoziazio prozesuetan. Azkenik, eta neurri batean aurreko puntuaren ondorioz, Amazoniako gizarte erakundeak txikiak eta baliabide gutxikoak izan dira, eta horrek ekintza kolektiborako zailtasuna larriagotu eta beste eragile batzuekiko erresistentziarako eta/edo negoziatorako gaitasuna murrizten die.

Txosten honen bi kapituluek Amazonian edo Amazoniako artoa elikatzen duten arrien goi-ibarretan dauden baliabide mineralak erazteko prozesuen alderdi osagarriak jorratzen dituzte, tokiko biztanle indigenei eta/edo nekazariei eragiten dietenak. Lehenengo zatian, mearen erazketak ingurunean duen eragina aztertzen da; bigarrenean, berriz, Amazoniako herritarrek meatze proiektuen aurka duten erresistentzia. Bi kasuetan, gaiaren berrikuspen teorikoa egiten da, eta, ondoren, kasu praktikoren bat aztertzen da. Meatze eragiketen eraginak aztertzean, bi kasu hartzen dira aztergai: Compañía Minera Afrodita (Peru) eta Mocoa proiektua (Kolonbia). Meatze proiektuekiko erresistentziaren azterketa, berriz, Mocoa proiektuaren kasuan zehazten da.

Bi kasuak garrantzia eta informazio eskuragarria kontuan hartuta hautatu dira. Amazoniako meatze eragiketa garrantzitsuen kopurua txikia da, batez ere kontinenteko Andeetako eskualdearekin alderatuz

gero. Perun, Compañía Minera Afroditaren kasua hautatu zen, Amazoniako zonako proiektu bakanetakoa delako eta, halaber, gizartean eta politikan duen eraginagatik. Kolonbian, Mocoa proiektua Amazoniako eskualdean garatzen ari den legezko meatzaritzako proiektu urrietako bat da, eta, gainera, berriena.

Informazioa lortzeko modua eta haren erabilera desberdina da bi kasuetan. Afroditak 20 urte baino gehiago daramatza Kondorraren mendikatean kobrea eta urrea ustiatzeko meatze bat eraikitzeke asmoz. Denbora horretan, enpresak ingurunearekin duen interakzioari eta haren inpaktuari buruzko hainbat azterlan egin dira. Azterlan horiez gain, SAIPERen laguntza izan dugu. Tokiko GGKE horrek Afroditaren historiari buruzko txosten bat egin zuen, eta zenbait kontaktu eman dizkigu. Bestalde, Javier Arellanok ikerreremua eta kasuan zuzenean inplikaturako eragile batzuk ezagutu izanak prozesua hobeto ulertzen lagundu digu, dauden datuetatik abiatuta.

Mocoa proiektuak askoz historia laburragoa du, garatze bidean dago, eta, beraz, hari buruzko bibliografia urria da. Horregatik, RIMISP Landa Garapenerako Latinoamerikako Zentroaren Kolonbiako Bulegoaren bidez, landa lana egin zen 2021eko otsailean Mocoan, lehen mailako informazioa biltzeko, meatze proiektua eta meatze enpresak, biztanleriaren hainbat sektorek eta tokiko agintariak hartaz ziztuzten jarrerak ezagutzeko. Prozesu horretan, tokiko eragileei 22 elkarrizketa egin zitzaizkien, eta dagoen informazio dokumentala bildu zen. RIMISPk, gainera, txosten honen azterketan eta prestaketan parte hartu du, bere gizarte eta lurralde gatazken sailak egindako lanaren bidez, bereziki María del Pilar Bernal ikertzaileak. Txostenaren testuan, txosten honen bi zatien oinarri diren informazio iturriak aipatzen dira.

Lehenengo zatian, meatze eragiketa potentzialen miatzeko fasetik gertatzen diren zeharkako eraginak (sozialak, politikoak, kulturalak eta instituzionalak) aztertzen dira. Ikuspegi horrek meatzaritzak Amazonian dituen ondorioak argitzeko balio du, ingurumenean dituen eragin zuzenetatik harago. Hala ere, egia da, halaber, meatze enpresek lurraldean duten presentzia hutsak eragindako eraldaketek ekosistemaren kalteberatasuna areagotzen dutela. Babes figura legalak eta figura horiek betearazteko ardura duten erakundeak ahultzeak, sarbideko azpiegiturak eraikitzeak eta kanpoko eragileen jardunak Amazoniako oiharen deforestazioa eta kutsadura sustatzen dituzte.

Bigarren zatian, Amazoniako biztanleei meatze eragiketen aurkako erresistentzia antolatzen laguntzen dieten mekanismoak eta tresnak argitzen dira. Azterketak herri indigenen egoera lehenesten du, eta legezko mekanismoak izatearen eta erabiltzearen garrantzia nabarmentzen du. Mekanismo horien existentziak ez ditu arazoak berez konpontzen, baina sarritan, oztopo eta mugekin bada ere, aukera ematen du herri indigenek, eta, oro har, tokiko biztanleek, beren bizi planen eta kosmogoniaren arabera beren etorkizuna argitu edo, gutxienez, hausnartu ahal izateko.

Ikerketa honek lagungarri izan nahi du trantsizio energetikoari buruzko eztabaidetan planteatu beharreko galderetan, alegia: zer egin daiteke trantsizio energetikoak meatze eragiketen eraginpean dauden Amazoniako populazioen bizi baldintzak okertu ez ditzan, giza esku-bideen urraketa betikotu ez dezan eta, zeharka, eskala handiko kalte ekologikoak sor ez ditzan?

Bibliografia

- Atwood, G. (1975). The strip-mining of western coal. *Scientific American*, 233 (6), 23-29.
- Bebbington, A., Abdulai, A.-G., Bebbington, D. H., Hinfelaar, M., & Sanborn, C. (2018). *Governing extractive industries: politics, histories, ideas*. Oxford University Press.
- International Energy Agency. Minerals used in clean energy technologies compared to other power generation sources. International Energy Agency.
- Ross, M. (1999). The political economy of the resource curse. *World Politics*, 51 (2), 297-322.
- Science Panel for the Amazon. (2021). *Chapter 19 in Brief: Drivers and ecological impacts of deforestation and forest degradation*. United Nations Development Program
- World Bank. (2020). *Minerals for climate action: The mineral intensity of the Clean Energy transition*. World Bank.

1. zatia

Meatzaritzako proiektu berriak Amazonian: bizilagunen eta haien ingurunearen gaineko inpaktuak

Javier Arellano-Yanguas, María del Pilar Bernal-Gómez
eta Sergio Caballero

1. Sarrera

Amazonia, historikoki, promes lurraldetzat hartu izan da. Doradoren mitoak urre eta aberastasunen egarri ziren konkistatzaile eta abenturazaleak mobilizatu zituen xvi. mendetik aurrera (Kupchik, 2008). xix. mendearen bigarren erdian eta xx. mendearen lehen hamarkadetan, kautxuaren ustiapenak lurraldea kontrolatzeko eta ustiatzeko modu berriak ekarri zituen (Ullan de la Rosa, 2004). Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eredu desarrollistek Amazoniaren kolonizazioa bultzatu zuten. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren mugak zabaltzea zen helburua (Walker, 1987). Historian zehar, oihana eta herri indigenak modu bakar batean agertzen dira: kolonizatzaileek beren helburuak lortzeko zibilizatu eta menderatu nahi duten eremu exotiko eta basati gisa. Helburu horiek, baina, ez dute loturarik Amazoniako bizilagunen ekosistemekin, bizimoduarekin eta asmoekin.

Milurteko berriaren hasieratik, globalizazio ekonomikoaren areagotzeak haragiaren, metalen eta petrolioaren eskaria handitzea ekarri

zuen eta, ondorioz, Amazoniaren gaineko presioa indartu zuen. Hasi-
siera batean, Txinako eta gorabidean dauden herrialdeetako hazkunde
ekonomikoa izan zen eskaeraren hazkunde dramatiko horren jatorria.
Azken hamarkadan, trantsizio energetikorako mineral kritikoen ekoiz-
pena handitzeko beharrak areagotu egin du joera hori (Sanderson,
2022).

2018ra arte, Amazoniako oihanak 870.000 km² galdu zituen, hau
da, jatorrizko hedaduraren %14. Azalera horren %42 (366.300 km²)
azken 25 urteetan soildu da. Deforestazio mailarik handiena 2003an
gertatu zen, erritmoak behera egin zuen 2013ra arte, baina harrezkero
berriz ere gora egin zuen (Science Panel for the Amazon, 2021b). Baso
soiltzearen hedadura eta erritmoa Amazoniako oihana eta bertako biz-
tanleak mehatxatzen dituzten hainbat prozesuren adierazle globala da.
Nekazaritza eta behien abeltzaintza estentsiboa dira deforestazio ho-
rren eragile nagusiak. Adibidez, Brasilen soildutako eremuen %80 la-
rreek betetzen dute (Science Panel for the Amazon, 2021a). Baina
meatzaritzak ere eragin negatibo handiak ditu Amazonian.

Amazoniako oihanak kobrea, eztainu, nikel, burdina, bauxita, man-
ganeso eta urre hobi handiak ditu. 2000 eta 2015 artean, meatzari-
tza izan zen Brasilek jasan zuen baso soiltze osoaren %9aren iturria.
11.670 km² soildu ziren, eta ondorio negatiboak baimena emandako
eremuaren ertzetik 70 km haratago iritsi ziren (Science Panel for the
Amazon, 2021a). Gaur egun, Amazonian 45.000 meatze emakida in-
guru daude indarrean edo onartzeko zain, eta horietatik 21.536 eremu
babestuekin eta lurralde indigenekin gainjartzen dira (Science Panel for
the Amazon, 2021a). Emakida horiek 1,28 milioi km² inguru estaltzen
dituzte, hau da, Amazoniaren azalera osoaren %18, eta talde indige-
nen lurraldearen %30 baino gehiagori eragiten diete (Quijano Vallejos
et al., 2020).

Meatzaritzak hainbat efektu mota sortzen ditu Amazonian. Mea-
tzaritzako jarduera motak garrantzi handia du ondorio horiek zehaz-
teko orduan. Mineral batzuk, bauxita, kobrea eta burdina kasu, en-
presa handiek erazten dituzte legearen barruan; urrearen meatzaritza,
berriz, neurri handi batean, informala/legez kanpokoa da. Alubioi-urrea
da, tradizioz erriberako biztanleek eskuz ustiari izan dutena, baina az-
ken urteetan, urrearen prezioen igoeraren ondorioz, eskualdetik kan-
poko aktoreak erakarri ditu. Eskala handiko meatzaritzak zein legez

kanpoko meatzaritzak ondorio kaltegarriak dituzte ingurune fisikoan. Efektu horietako batzuk zuzenak dira. Adibidez, kutsadura sortzen dute, eta, euri kopuru handia dela eta, kutsadura hori erraz hedatzen da eta zaila da kontrolatzen. Zeharkako ondorio fisikoak ere sortzen dira, errepide berriak eraikitzean. Errepide horiek erraztu egiten dute zurgintzako enpresak sartzea, nekazaritza eta abeltzaintza jarduera areagotzea, eta, oro har, ahuldu egiten dute indigenen eta tokiko herrien lurraldearen gaineko kontrola.




Iturria: CooperAcción.

1. IRUDIA

Kondorraren mendikateko (Peru) meatze emakiden kokapen mapa

Inpaktu fisiko horiez gain, meatzaritzak aldaketa sozial eta politikoak eragiten ditu, eta arreta gutxiago jaso badute ere, eragin iraunkorragoak dituzte, eta, azkenean, ingurumenari ere eragiten diote. Lan

honen helburu nagusia aldaketa sozial eta politiko horiek aztertzea da. Horretarako, bi meatze proiektuk Amazoniako ingurunean dituzten ondorioak aztertu ditugu. Lehenengo proiektua Afrodita enpresarena da, Kondorraren mendikatean (Amazonas-Peru). Cenepa ibaiaren arroaren goi-ibarrean dagoen kobre meategiaren proiektua da, awajun lurralde indigenan. Bigarren kasua Mocoan dago, Putumayo departamenduko hiriburuan (Kolonbia), eta Libero Cobre enpresak bultzatzen du. Kana-dako enpresa horrek meategi polimetalliko bat eraikitzeko asmoa du.



Iturria: Rismip-ek egina.

2. IRUDIA

Mocoa (Putumayo-Kolonbia) proiektuaren eta meatze emakiden eraginpeko «vereden» kokapen mapa

Bi kasuetan, metalen ustiapen intentsiboan aurretiazko esperientziarik ez duten lurraldeetan planteatzen da jarduera. Peruko kasuan, egitasmoa ez zen miaketa fasetik pasatu. Balio komertziala duten mineral hobien zantzuak egon arren, eta enpresak bertan hainbat urte eman ondoren, estatuak miatzeko baimenak kendu zituen (ODECOFROC, 2009). Gatazkak zeuden etengabe (gogora dezagun Baguazoko gertaera enblematikoa) eta politikoki oztopo gaindiezina bilakatu ziren. Kolonbiako kasuan, enpresa duela gutxi sartu zen eskualdean miaketa lanak planteatzeko (Libero Copper, 2022). Bi esperientzia horiek erakusten dutenez, ingurunea fisikoki eraldatu aurretik, meatza-

ritzako enpresen asmoek eta presentziak eraldaketa sakonak eragiten dituzte gizartean, taldeen arteko harremanetan eta erakundeetan. Al-daketa «ukiezin» horiek eragin negatiboak dituzte tokiko herrietan eta beren etorkizuna erabakitzeko ahalmenean. Baina, gainera, askotan ekosisteman eragin handia duten beste aldaketa fisiko batzuei ere irekitzen diete atea, hala nola baso mozketari eta legez kanpoko meatzaritzari. Funtsezkoa da zeharkako eta «bigarren txanda»ko efektu horiek kontuan hartzea, Amazonian meatze eragiketak planteatzen direnean.

2. Zer dakigu meatzaritzak Amazonian dituen inpaktu sozial eta politikoei buruz?

Ikerketa gutxi daude Amazoniako eskala ertain eta handiko meatze ustiapenaren inpaktu sozial eta politikoei buruz (Cruz *et al.*, 2021; Quilliconi & Rodriguez Vasco, 2021; Ramos-Cortez & MacNeill, 2022). Horren arrazoietakoa bat da eragiketa horien kopurua askoz txikiagoa dela Amazonian Latinoamerikako beste eskualde natural batzuetan baino. Hala, ikerketa meatzaritzako mega-eragiketa gutxi batzuetan oinarritu da batez ere (Cruz *et al.*, 2021; Matlaba *et al.*, 2017; Wasylycia-Leis *et al.*, 2014). Azken urteotan gehiago ikertu dira urrea erauzten duen meatzaritza informala eta/edo legez kanpokoaren ondorioak, eta arreta berezia jarri da ingurumenean eta herri indigenetan dituen eragin larrietan (Quijano Vallejos *et al.*, 2020; Salazar Cardona *et al.*, 2019).

Eskala ertain eta handiko meatze jarduerari dagokionez, ikerketek baieztatzen dute dagoeneko ezarrita dauden ustiategi handietan, eta funtzionatzen luzaro daramatenetan, esaterako Carajáseko Canaan (munduko burdina meategi handienetako bat), bizilagunek bere egin dutela meatzaritza jarduerarekin bizi behar izatea. Kasu horietan, gogobetetze maila edo gatazka arriskua jardueraren inpaktu ekonomiko, sozial eta ingurumenekoekin lotuta daude. Enpresek inpaktu horiek konpentsatzeko gehiago inbertitzen duten heinean, biztanleek isilbidez berritzen diete lizentzia soziala ustiatzen jarrai dezaten (Cruz *et al.*, 2021). Enpresen eta tokiko herrien arteko negoziazio inplizitu hori etengabe berrikusten da eta oreka ezegonkorak sortzen ditu. Gauzak horrela, behin eta berriro izaten dira gatazkek, eta negoziazio prozesu berrien irekiera markatzen dute, biztanleriaren eta enpresen interesen arteko oreka puntu berriak ebazteko (Arellano-Yanguas, 2011a).

Beste ikerlan batzuek Amazoniako ingurumenean eta herri indigenek beren lurralde tradizionalen autogobernurako duten eskubidean izaten diren eraginei erreparatzen diete (ODECOFROC, 2009; Quijano Vallejos *et al.*, 2020). Nahiz eta legeria nazionalek eskubide horiek aitortu ohi dituzten, meatze eskubideak emateko prozesuek eta korporazio eta agintari publikoen jardunbideek galarazi egiten dituzte eskubideok, eta batzuetan haiekin zuzenean kontraesanean egoten dira (Sawyer & Gomez, 2008).

Meatze jarduera handiek Amazonian dituzten inpaktu sozial eta politikoei buruzko berriarazko azterlan gutxi daudenez, interesgarria da berriusketa honi ikuspegi bikoitzetik heltzea. Lehenik eta behin, mea ustiategi batetik gertu dagoen edozein landa eremutan izan ohi direnen antzeko inpaktuak identifikatuko ditugu. Bigarrenik, adieraziko dugu zertan den desberdina Amazonia mea ustiategiak dauden beste leku batzuen aldean. Bi ikuspegi horietatik abiatuta koka dezakegu gure azterketa.

2.1. *Meataritzako proiektuek landa ingurunean dituzten inpaktu sozial eta politikoak*

Zer eragin sozial eta politiko daude meatze eragiketa baten inguruan? Latinoamerikako testuinguruan, galdera horri erantzuten saiatzen diren ikerlanak eragiketaren garapen fasearen arabera bana daitezke. Ikerlan multzo batek enpresen presentziaren lehen faseetako inpaktuak aztertzen ditu: miaketa iragartzen denetik baimenak lortu eta meategia eraikitzen hasten den arte (Castillo Guzmán, 2020; Huber, 2009; Salas Carreño, 2008; Warnaars, 2012). Beste ikerketa multzo batek jardueraren eraginak aztertzen ditu behin eragiketa martxan dagoenean eta mineralak ateratzen direnean (Arellano-Yanguas, 2011a, 2011b, 2019; Bebbington, 2012; Bebbington & Bury, 2013; Triscritti, 2013).

Lehen fasean, enpresa tokiko herritarrekin harremanetan jartzen denean, itxaropenak sortzen dira eta harreman ez oso gardenak ezartzen dira herritar talde desberdinekin (Salas Carreño, 2008). Duela hamarkada batzuetatik hona, meatze enpresak landa eremuetan sartzeak erresistentzia mugimenduak eta gatazkak sortzea dakar. Testuinguru horretan, enpresek Jarduteko Lizentzia Soziala edo tokiko herritarren baimena lortu behar dute haien lurraldean lan egiteko. Estatuak arautu dezakete Jarduteko Lizentzia Soziala, aurretiaz parte hartzeko eta/edo

konsultarako hainbat prozesuren bidez (Prno & Slocombe, 2012). Hala ere, erregulazio zehatzak egoteaz gain, jarduteko lizentzia sozialak baimen esplizitu edo tazitu bat egotea dakar, baina baimen hori kolokan geratzen da gatazka sozialak eta erresistentzia mugimenduak baldin badaude. Horregatik, lurraldean sartzen diren lehen fase horietan, meatze enpresek gatazkak saihestu nahi izaten dituzte, edo, bestela, gatazkak kudeatu, lurralde horretan lan egiteko ahalmenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten, eta, era berean, eragiketaren miaketa kostuak eta, hala badagokio, eraikuntza kostuak finantzatu behar dituzten inbertitzaileak erakartzeko (Franks *et al.*, 2014). Baldintzatzaile horien ondorioz, enpresak tokiko herritarren aurrean beren jardueraren ondorio positibo potentzialak aldarrikatuz aurkezten dira, eta, horrela, ongizate itxaropen handiak sortzen dituzte eta izan litezkeen arazoak minimizatuta edo ezkutatuta geratzen dira. Tokiko biztanleentzat enplegua sortzeko eta tokiko ekonomia dinamizatzekeo promesak dira atxikimendua sustatzeko sarrien erabiltzen diren erakargarriak (Bebbington *et al.*, 2008). Teknologia garbiak erabiltzeko eta ingurumenari kalterik ez egiteko konpromisoa, berriz, kritikoei aurre egiteko disuasio elementu gisa erabiltzen dira (ICMM, 2012).

Herritarrengana hurbiltzeko eta Jarduteko Lizentzia Soziala konkistatzeko estrategia horren emaitzak ez dira beti berdinak testuinguruaren arabera. Batzuetan, tokiko oposizioa hain da sendoa, non suspertu egiten baititu meatze jardueraren aurkako erresistentzia mugimenduak, eta, horren ondorioz, enpresek atzera egiten baitute beren planetan (Kröger, 2021; Martínez Alier, 2015; Walter & Wagner, 2021). Horrelako egoerak badira, baina ez dira oso ohikoak (Orihuela *et al.*, 2022). Beste muturrean, tokiko herritarrak meatzaritzaren onurez hain konbentzituta edo premian daude, ezen ez baitago oposiziorik, eta enpresek aurrera egiten baitute beren planen garapenean, eragozpen handirik gabe. Horrelako egoerak ere badira, baina gero eta gutxiagotan gertatzen dira. Eta gehienetan, tokiko komunitateen barruan ikuspegi eta interes desberdinak egoten dira (Arellano-Yanguas, 2011b; Orihuela *et al.*, 2022). Zatiketa egoera horretan, enpresak oposizioa hausten eta beren aldekoak indartzen saiatzen dira.

Hainbat kasu azterlanetan ikus daitekeenez, meatze enpresak tokiko herritarren onarpena lortzen saiatzen dira, epe ertain eta luzean eragin negatiboak izango dituzten jarduketekin (Arellano-Yanguas, 2011b; Arellano-Yanguas & Bernal-Gómez, 2017; Himley, 2013). Lehe-

nik eta behin, aurkari potentzialtzat jotzen diren liderren kooptazioaren adibide ugari daude. Horretarako, ohikoa da enpleguak, zerbitzu kontratuak edo konpentsazio ekonomikoak eskaintzea, enpresaren proiektuekiko jarrera positiboa erakustearen truke. Bigarrenik, ahalegina egiten da tokiko agintariak meatze jardueraren onurez konbentzitzeko. Hori legezko eta legez kanpoko jarduketan bidez egiten da. Lehenengoan artean tokiko komunitateei mesede egiten dieten zerbitzuak eta proiektuak martxan jartzea dago (Arellano-Yanguas & Bernal-Gómez, 2017; Himley, 2013; Perla, 2012). Sarritan, mendekotasuna sortzen duten administrazio publikoen rola ordezten dira, baina ez dago legez kanpoko ezer (Arellano-Yanguas, 2011a). Hala ere, badira tokiko agintariari egindako mesedeak eta ordainketak ere, ustelkeriaren kontzeptuaren barruan sartzen direnak (Bebbington & Bury, 2013; López-Cazar *et al.*, 2021). Hirugarrenik, botere ekonomikoa eta komunikabideak eta sare sozialak erabiltzen dira liderrak desprestigiatzeko eta enpresarekin kritikoak diren erakundeak zatitzeko. Laugarrenik, jardueraren alde dauden herritarrak lurraldera etor daitezzen errazten da, eta enpresaren planetikiko abegitsuagoak izango diren erakunde berriak sortzea sustatzen da (Castillo Guzmán, 2020). Azkenik, kasu batzuetan (gutxi baina esanguratsuak), enpresek indarkeria erabiltzen dute beren planen aurka dauden liderrak beldurtzeko (Bebbington, 2007). Hala, herrialde askotan erauzketa industriaren sektorean dago gizarte liderren aurkako indarkeria mailarik handiena. Indarkeria hori, normalean, talde kriminaletan eramaten dute aurrera, baina, kasu batzuetan, enpresen zerbitzura jartzen diren militarrek eta poliziak egoten dira tartean egitez edo ez egitez (Imai *et al.*, 2017; Rasch, 2017).

Horrelako jarduerak komunitateen zatiketa ekartzen dute, tokiko eragileak antolatzeko gaitasunik eza, indarkeria, ustelkeria eta erakunde publikoekiko konfiantza galtzea. Elementu horiek guztiek zaildu egiten dute epe ertain eta luzean hitzarmen prozesuak, garapen desiragarriaren ikuspegi partekatuak eta, kasu askotan, lurraldearen gobernu eta kontrol eraginkorra sortzea. Dinamika horiek enpresen eta tokiko komunitateen arteko interakzioaren lehen uneetan sortu ziren, eta enpresen posizionamenduaren ondorengo garapena eta herritarrengan duten eragina markatzen dute, mesfidantzak markatutako harreman moldeak sortzen baitituzte, aldatzen zailak direnak (Arellano-Yanguas, 2011b, 2019; Bebbington, 2012; Bebbington & Humphreys Bebbington, 2018; Salas Carreño, 2008).

Jakina, jardunbide egokien adibide batzuk ere badira. Azken bi markadetan, meatze enpresa handiak arazo horietaz arduratu dira eta meatzaritza arduratsuaren diskurtsoa sortu dute, tokiko garapenaren bilaketan herritarren aliatua den meatzaritzaren diskurtsoa. Halaber, politika eta jardunbide egokiei buruzko corpus bat identifikatu dute, bizilagun on gisa kokatzeko. Hala ere, eguneroko jardunean, harreman problematikoak izaten jarraitzen dute maiz, aurreko paragrafoetan deskribatutakoen antzekoak, alegia.

Batzuetan, enpresek ondo bideratzen dute tokiko herritarrekiko harremana eragiketen lehen faseetan. Herritarrak kezkatuta egoten dira, baina enpresaren jarduerak mesede egingo dielako itxaropenean. Halakoetan, agintariek itxaropen horiek eta interes talde desberdinen lehia kontrolatzea izaten da lehen faseko inpaktua. Baina eragiketa martxan dagoenean, hainbat arazo mota sor daitezke inguruko herrietan, honako arrazoi hauek direla eta: (i) itxaropenak eta azken emaitzak bat ez etortzea, (ii) desoreka egotea enplegua lortzeko aukera eskasak dituzten gizarte taldeen eta meatzaritzako jardueraren irabazien artean; (iii) agintarien kooptazioa eta tokiko sistema politikoa desitxuratzea, eskualdeko eta herriko hauteskundeetan enpresaren aldeko hautagaiei lagunduta; (iv) gizarte osoaren mende-kotasun gero eta handiagoa enpresarekiko; (v) immigrazio masiboak eragindako gizarte aldaketa bizkorak; (vi) alkoholaren eta estupefazianteen kontsumoaren abusua; (vii) genero desberdintasuna areagotzea, meatze jarduera oso maskulinizatuta dagoelako; eta (viii) tokiko gobernuei baliabideak transferitzen zaizkienean, agintarien ustelkeria eta talde kriminalen sorrera.

Meatzaritzako eragiketa abian dagoenean sortutako arazo horiek inpaktu negatiboak eragiten dituzte tokiko bizilagunengan, aurreko fasean gertatutakoen antzekoak, batez ere barne zatiketak, agintariekiko konfiantza falta eta erakunde publikoen legitimitatearen higadura.

2.2. Meatzaritzako eragiketen inpaktuan eragina duten Amazoniaren berezko ezaugarriak

Zer ezaugarri ditu Amazoniak meatze eragiketen inpaktu sozial eta politikoak larriagotu edo murriztu ditzaketanak?

Definizioz, geografiak eta ingurumenak ezaugarritzen dute Amazonia. Jatorriz, Amazonas ibaiaren arroa eta ibaiadar guztiak 7 milioi km² baso tropikal hezez estalita zeuden, Andeetako mendietaraino, ekosistema bakarra osatzen dutenak. Lurralde zabal horretan 47 milioi pertsona baino gehiago bizi dira, zortzi herrialdetan banatuta. Biztanle horien %4,5, 2,2 milioi pertsona, 410 talde edo nazio desberdinetako indigenak dira (Science Panel for the Amazon, 2021a).

Amazoniako lurraldearen ehuneko 45 inguruk nolabaiteko babes du balio ekologikoagatik babestutako eremuak direlako edo lurraldearen gaineko kontrol eskubideren bat duten herri indigenek okupatzen dituztelako (Regis Florisbelo & Guijt, 2004; Watson *et al.*, 2019). Talde indigenek hainbat eskubide eta kontrol ahalmen dituzte aitortuta 3.000 lurralde baino gehiagoren gainean. Lurralde horien %80 basoz estalita daude, eta Latinoamerikako baso birjina guztien %35 baino gehiago herri indigenek okupatzen dituzte. Beraz, lotura sendoa dago herri indigenen eta Amazoniako basoaren babesaren artean (Red Amazónica de Información Socioambiental Georreferenciada, 2018; Science Panel for the Amazon, 2021b).

Esparru geografiko eta demografiko horrek meatze-jarduerak ingurunean duen inpaktuan eragiten duten zenbait ezaugarri ditu: ekosistema lokala (Salomons, 1995), estatuaren asimetrika.

Ura da Amazoniako ekosistemaren elementu nagusia. Euri prezipitazioa oso handia da, hainbat herritan 1.500 eta 3.000 mm artekoa. Hori da Amazoniako espazioa lotzen duen ibai sare zabalaren sorburua, eta meatzaritzak ingurumenean dituen inpaktuak kudeatzeko erronka handietako bat ere bada. Prezipitazio maila altuak meatzaritzako hondakinen kudeaketa zailtzen du, eta maiz sortzen da metal astunen kutsadura, ur ibilguetara hedatzen dena (Pereira Covre *et al.*, 2022). Kutsatzeko arrisku potentziala dela eta, tokiko biztanleriaren zati batek kezka ikusten du jardueraren hasiera. Izan ere, kutsatzeko arriskuari buruzko diskurtsoa da meatze eragiketa berriak ezartzearen aurkako protestetan nagusi den argudioa (Martinez-Alier, 2021; Mesanza-Ramón *et al.*, 2022; Siqueira-Gay *et al.*, 2020). Bestalde, Amazoniako eremuetan, ustiapen eremu potentzialetara iristeko zailtasunak inbertsio handiagoak eskatzen ditu enpresen aldetik, eta, askotan, estatuaren lankidetzat estua armadaren bitartez.

Biztanleriaren sakabanaketa da Amazoniako geografiak dakarren bigarren elementua. Amazoniako biztanle gehienak Manaos, Belen, Letizia

eta Iquitos hiri handietan biltzen dira. Gainerako biztanleek oso modu sakabanatuan okupatzen dute lurraldea, herri eta komunitate txiki ugaritan. Biztanleriaren sakabanatze horrek eragin bikoitza du meatze proiektuak ezartzearen ikuspegitik. Alde batetik, enpresek tokiko herritarrekin izan beharreko elkarreragina zailtzen du. Hori eragozpena da gardentasunez jokatu nahi duten enpresentzat. Hala ere, meategien sustatzaile asko sakabanaketaz baliatzen dira herritar horien iritzia alde batera uzteko edo beren interesen arabera multzokatzeko, beren asmoak legitimatzen dituzten kontsultak egiteko. Bestalde, tokiko herritarren ikuspegitik, sakabanaketak komunikazioa eta lankidetzaz zailtzen ditu, eta erresistentzia mugimenduak antolatzea oztopatzen du. Adibidez, oso zaila da Amazoniako biztanleentzat ekonomiaren edo erakundeen ohiko funtzionamendua aldatzeko ahalmena izango duen protesta erreperitorio bat erabiltzea, eta horrek nabarmen eragozten du nazio mailan eragina edukitzea.

Herri indigenen egoerari eta zereginari arreta berezia eskaini zaio. Esan bezala, meatze emakidek herri indigenen lurraldearen %30 baino gehiagori eragiten diete (Quijano Vallejos *et al.*, 2020). Beraz, meatze eragiketa potentzialek herritar talde asko ukitzen dituzte zuzenean. Emakidan utzitako lurraldearen gaineko kontrolaren legezko babesa eta lurraldearen balorazio kolektiboa nolakoak, eragina eta erreakzioa halakoak. Herrialde bakoitzeko legeria espezifikoak ere badu zerikusia. Azken bi hamarkadetan, herri indigenek lurraldearen gainean dituzten eskubideen aitortpen formal gero eta handiagoa izan da, batez ere Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenaren garapenari esker, baina, aldi berean, gobernuak ez dute behar bezain zorrotz aplikatu hitzarmen hori (Wright & Tomasevli, 2019). Horren ondorioz, sarritan, gobernuak beren lege konpromisoak betetzeko egiten dutenak liskarrak eta barne zatiketak sortzen ditu talde indigenetan (Flemmer & Schilling - Vacaflo, 2016; Schilling - Vacaflo & Eichler, 2017). Lurraldearen kontrola izateak zer esan nahi duen ulertzeko irizpide desberdinak dira liskarren arrazoi nagusietako bat. Talde batzuek konpentsazio ekonomikoren bat bilatzen dute; beste batzuek, berriz, ez diete diruzko baliorik eman nahi beren autonomia politikorako eta, beraz, biziraupenerako funtsezkoak diren ondasunei (Martinez-Alier, 2012).

Estatuak Amazonian duen presentzia eta papera beste faktore garrantzitsu bat da meatze ustiapenaren inpaktua aztertzeako orduan. Mende hasierako prezioen boomaren ondoren, gobernu gehienek, beren filiazio politikoa zeinahi dela ere, meatzaritzaren sektoreko inbertsioa aktiboki sustatu zuten ekonomia dinamizatzeko eta kanpoko balantza eta

balantza fiskala orekatzeko (Gudynas, 2009). Amazoniako testuinguruak zailtasun gehigarriak dakarzkie meatze enpresei (garraiatzeko zailtasunak, emakidak lortzeko zailtasunak eta tokiko herritarrekin adosteko zailtasunak), eta gobernuak modu aktiboan esku hartu eta lagundu diete enpresei beren proiektuak aurrera eramanez ditzaten. Meatze lurraldeetan sortutako distorsioak estatuaren gabeziaren ondorio direlako ustearen kontra, agerian geratzen da benetan estatuaren presentzia asimetrikoa dagoela. Latinoamerikako estatuak ustiapena errazteko daude Amazonian (Ramos-Cortez & MacNeill, 2022). Enpresen aldeko jarduketek sinesgarritasuna kendu diete gobernuari herritarren interesen defendatzaile gisa agertzeko, eta horrek gatazkak sortu eta/edo larriagotu ditu eta erakunde publikoen zilegitasuna galarazi du (Schilling-Vacaflor *et al.*, 2018).

Bibliografiak meatzaritzak Amazonian izan duen eraginari buruzko oraintsuko eta oraingo esperientzia zenbateraino jasotzen duen egiaztatzeko, jarraian bi kasu aurkeztu eta aztertuko dira. Bietan ere meatze enpresak eskala handiko eragiketak martxan jartzen saiatu dira Perun eta Kolonbian. Lehenengoa Compañía Minera Afrodita (CMA) enpresaren jarduerari buruzkoa da. CMAk aire zabaleko kobrea eta urre meatze bat jarri nahi izan zuen martxan Kondorraren mendikatean, Cenepa ibaiaren goialdeetan, Peru eta Ekuador banatzen dituen mugaren gainean. Bigarren kasua Mocoa herrian dago, Putumayo departamenduan (Kolonbia). Bertan, Libero Cobre enpresa kobrea meategi bat eraikitzeko miaketa lanak egiten hasi zen 2021ean. Bi kasuek oso ibilbide ezberdina dute. CMAren kasuak 20 urte baino gehiagoko ibilbidea du. 2022an, epai batek bere asmoetan atzera egitera behartu du enpresa. Libero Cobreraren kasua bere jardueraren hasierako fasean dago. Nolanahi ere, bi kasu horiek interesgarriak dira ulertzeko haien presentziak, ustiapen fasean sartu aurretik ere, nolako aldaketa sakonak eragin dituen tokiko gizartean. Jarraian, bi kasuak aurkeztuko ditugu eta inpaktu horiek zein izan diren azaltzen saiatuko gara.

3. Compañía Minera Afrodita eta indigenen erresistentzia: garaipen baten kostua

Kondorraren mendikatea, Peruren eta Ekuadorren arteko muga, awajun herriaren lurraldearen zati da. Mendikatea Cenepa ibaiaren arro-burua da, eta Cenepa Maraño ibaiaren adarra. Mendilerrotik jaisuten diren ibaiadarrek alubioi-urrea dute, euri gutxiko sasoiaren awaju-

nek ustiatu izan dutena. 2007ko erroldaren arabera, Cenepa ibaiaren arroan 8500 awajun indigena inguru bizi ziren, 42 komunitatetan banatuta, lurraldearen okupazio eredu oso sakabanatuarekin.

1980tik, Ekuadorretik datozen meatzari informalak Peruko lurraldera sartzen dira eta minerala ateratzen dute, nahiz eta minerala Ekuadorren prozesatu. 1981ean, bi herrialdeen artean gatazka armatuaren saio bat izan ondoren, urrezko zain batzuen azterketa geologikoak hasi ziren. 1987an, Alan Garcíaren lehen gobernuak Kondorraren mendikatean urre hobiiak aurkitu zirela jakinarazi zuen. Hala ere, mugaldean zenez, Gobernuak erabaki zuen mendikatean meatze emakidarik ez ematea eta Armadari enkargatzea kontrola (Durand, 2009).

1993an, Alberto Fujimoriaren gobernuak meatzaritzaren lege berria aldarrikatu ondoren, meatze emakidak egiten hasi ziren Kondorraren mendikatean. 1995ean, Metalfin enpresak Compañía Minera Afrodita (CMA) izen berria hartu zuen, eta meatze miaketak egiteko asmoa iragarri zuen. 2007an, CMAk, gaur egun emakiden onuradun gisa agertzen denak, bere eragiketen %100 erosteko eskubidea negoziatu zuen Dorato Resources Peru-ren alde —Dorato Resources meatze miaketako kanadar konpainiaren subsidiarioa— (Durand, 2009; ODECOFROC, 2009).¹ Peruko izen-mailegatzailleek kudeatutako enpresa subsidiarioa sortuta, Peruko legedia saihestu nahi izan zen, debekatu egiten baitie kanpoko enpresei mugako eremuetan meatze baliabideak ustiatzea.² CMArekin egindako akordioaz gain, 2006an, Dorato Resources

¹ Dorato Resources Kanadako meatze-enpresa bat zen. Meatze potentzialen miaketan inbertitzen zuen eta, identifikatu ondoren, batzuetan ustiapenean espezializatu-tako enpresei saltzen zizkien. Urteetan enpresari buruzko informazioa ematen zuen web bat zegoen: Orrialdea, www.doratoresources.com). Beraren aktibo bakarra Afroditaren %100aren erosketa-eskubideak ziren, eta Afroditaren miaketa-emaitzei buruzko informazioa aurkezten zuen. Besteak beste, Afroditaren emakidetan miatzeko finantzaketa aipatzen zen. Bestalde, Dorato Resources Cardero Resources-en jabetzakoa zen. Kanadako meatze talde txiki horrek World Copper-ekin bat egin zuen 2022ko hasieran (<https://worldcopperltd.com/>). 2022ko abendutik, Cardero Resources-en webguneak (www.cardero.com) World Copperrenera bideratzen du, eta zuzendaritza taldeko kide batzuk berberak direla ikusten da. World Copper-en eragiketen katalogoan jada ez da agertzen Kondorraren mendikateko emakidei buruzko erreferentziarik.

² Peruko Konstituzioaren 71. artikulua: mugako lerrotik berrogeita hamar kilometro tartean, «atzeritarrek ezin dituzte eskuratu edo eduki, inolako tituluren bidez, meatzeak, lurrak, basoak, urak, erregaiak eta energia-iturriak, ez zuzenean ez zeharka».

Peru konpainiak Peruko Gobernuak Kondorraren mendikatean meatze emakida berriak berari zuzenean esleitzea lortu zuen. Hala ere, informazioen arabera, hurrengo urteetan egindako miaketa lanak CMAren emakidetan egin ziren, baina Doratok finantzatuta (Garcia & Laura, 2016).

Gatazkaren sustraiak CMA enpresak Kondorraren mendikatea esploratzeko dituen interesetan daude. 2001eko urrian, CMAk baimena eskatu zion Baliabide Naturalen Institutu Nazionalari (INRENA) Cenepa ibaiaren eta Comaina ibaiadarraren goi-ibarrak miatzeko (ikus 1. irudia). 438-2001-INRENA-J-DGANP gutunaren bidez, INRENAk jakinarazten du eskaera onartezina dela lurraldeko baldintza naturalengatik. Izan ere, 1999tik, Kondorraren mendikatearen zati handi bat Santiago-Comaina erreserba eremua da DS 005-99-AG bidez.

90eko hamarkadaren amaieran, awajun indigenen erakundeek, meatze eta petrolio konpainien hedapena geldiarazteko asmoz, Ekuadorren ondoko euren lurraldearen zati bat babespeko eremu natural izendatzeko eskatu zuten. Eskaera hori Nazioarteko Kontserbazioa GKEak 1996an egindako txosten batean oinarritzen zen. Txosten horretan, eremu hori lehentasunezkoztat jotzen zen aniztasun biologiko nazionala kontserbatzeko (Vera, 2020). Gainera, Peruren eta Ekuadorren arteko 1998ko bake akordioak mugaren bi aldeetan babes ekologikoko eremuak izendatzea ezarri zuen. Testuinguru horretan, 1999an, Peruko Gobernuak Santiago-Comaina Eremu Erreserbatua sortu zuen, guztira 863.277 hektareako azalarekin, eta, ondoren, 1.642.567 hektareara zabaldu zen (Durand, 2009).

Eremu erreserbatua kategoria iragankorra da naturagune babestua sortzeko. Prozesu horretan, xxi. mendeko lehen urteetan, Guztien Onerako Institutuak (IBC) komunitate indigenekin eta tokiko agintariekin lan egin zuen eremu babestu baten azalera ebazteko.³ Komunitateen

³ Prozesua parte-hartzailea izan zen, eta, *de facto*, aurretiazko kontsulta bat izan zen. INRENAren koordinaziopean, 2002ko ekainean hasi eta 2004ko abenduan amaitu zen. Bertako hogeita bat komunitetako agintari eta ordezkariak eta ibaien sektore ezberdinetako erakunde indigenak konprometitu zituen: Cenepa Ibaiaren Mugako Komunitateen Garapenerako Erakundea (ODECOFROC) eta Numpatkaim eta Comaina Garaiako Komunitate Indigenen Garapenerako Erakundea (ODECINAC), Cenepa ibaiaren arroan; Santiago Ibaiko Huambisa Komunitateen Federazioa (FECOHRSA, Wampis Herriarena), Santiago Ibaiaren arroan.

kezka zen beren eguneroko jarduera eremuak eremu babestutik kanpo geratzea; hortaz, sarritan erabiltzen ez ziren guneak, goi-ibarretan, eremu babestu izendatzeko eskatu zuten. Goi-ibarrak meatze jardueratik babesteko modu bat zela pentsatu zuten (Vera, 2020).

2004ko martxoan Huampamin, El Cenepa barrutiko hiriburuan, egindako bileran, komunitateek eta tokiko agintariek dokumentu bat sinatu zuten, komunitateetan lortutako akordio partzialak laburbiltzen zituen zituena. Hor zehaztu ziren eremu babestuak izango zituen mugak —153 mila hektarea inguruko azalera— eta eremu horrek izango zuen izena: Ichigkat Muja Parke Nazionala - Kondorraren mendikatea. Akordioa INRENAk, IBCk eta Nazioarteko Kontserbazioak berretsi zuten. Akordioa Ministroen Kontseiluari aurkeztea geratzen zen, parke nazionala ezar zezan (Vera, 2020). Ezustekoa etorri zen, 2007ko abuztuaren 10ean, Ichigkat Muja - Kondorraren mendikatea Parke Nazionala sortzeko agindua eman zenean, eremu babestuak 88.477 hektarea baino ez zituelako, proposatutakoa baino ia 65 mila hektarea gutxiago. Babesetik kanpo utzitako eremuan meatze eskaera batzuk zeuden, CMA eta Dorato Resources konpainienak, hain zuzen ere (ODECOFROC, 2009).

Geroago jakin zenez, 2005ean, INRENAren txosten teknikoek berretsitako 2004ko akordioaren ondoren, CMAko eta Dorato Resourceceteko ordezkariak Defentsa Ministerioko, Indar Armatuaren Komando Bateratuko, Kanpo Arazoetako Ministerioko, Energia eta Meategien Ministerioko eta INRENAko ordezkariekin bildu ziren, eta INRENAk bere txosten teknikoak aldatu behar zituela adostu zuten, Kondorraren mendikatean meatze ustiapenaren egokitasuna defendatzeko. Akordio horiek alderdiek azaroaren 8an sinatutako aktan jaso ziren (ODECOFROC, 2009, 32. or.).

Emaitzak nahigabe handia sortu zuen indigenengan. Atsekabea indartu egin zen; izan ere, 2007ko abenduan, Perupetro enpresa estatualak, hidrokarburoen loteak emateko ardura duenak, kontratu bat sinatu zuen Hocol Perú S.A.C. enpresarekin hidrokarburoak miltzeko eta, egoki bazen, ustiatzeko 853.381 hektareako eremu batean, parke nazionala mugatzeko prozesuan parte hartu zuten Awajún eta Wampis komunitateen lurraldea barne zela (Castillo Fernández, 2020; ODECOFROC, 2009). Peruko Iparraldeko Amazoniako Herri Indigenen Eskualde Erakundeak (ORPIAM), Cenepako Mugako Komunitateen Garapenerako Erakundeak (ODECOFROC), Marañon Garaiko Aguaruna

Komunitateen Erakundeak (OCAAM) eta Aguarunen eta Huambisen Kontseiluak (CAH) protesta bat hasi zuten herrialde eta nazioarte mailan, Amazoniako basoa eta Comaina eta Cenepa ibaien eta, ondorioz, Marañón-Amazonas ibaien arroa balizko kutsaduratik babesteko.

Prozesuak estatuko agintariekiko eta armadarekiko mesfidantza eta deslegitimazio sakona ekarri zuen. Herritarrek argi ikusi zuten enpresen interesen mende zeudela. Mesfidantza parkea mugatzeko prozesuko aliatu batzuegana ere iritsi zen. Horrela, Nazioarteko Kontserbazioa GKEak erreferente kontserbazionista izateari utzi zion, eta gauza bera gertatu zen INRENAREN sinesgarritasun teknikoari dagokionez (ODECOFROC, 2009). Indigenen erakundeek eurek ere bitartekari izateko gaitasunik ote zuten ezbaian jarri zen. Erakunde horiek ibai nagusien azpisektoreen arabera biltzen zituzten erakunde indigenak. Awajun eta wampis indigenek antolaketa egitura globalagoak jarri zituzten martxan, estatuari aurre egiteko prestatuagoak. Horrela eratu zen Condorcanguí eta Imaza lurraldearen defentsarako Indigenen Erakundeak Batzeko Batzorde Berezia (AW Batzorde Berezia)⁴, hidrokarburuen eta meatzeen emakiden aurrean indigenen lurraldea defendatzeko eta herri indigenei eragiten dien edozein lege proposamen aztertzeko. Batzordea Peruko Oihanaren Garapenerako Etnien arteko Elkartearekin (AIDSESP) solasean ere eratu zen, indigenen elkarten federazio horrek presentzia handia baitu nazioan eta nazioartean (Castillo Fernández, 2020).

2008ko maiatzaren 20an, 1015 Legegintzako Dekretua argitaratu zen. Dekretu horrek enpresa handien inbertsioa erraztu zuen eta nekazarien eta indigenen komunitateen izenean lurraldeak saltzeko baldintzak leundu zituen. AIDSESPek eta erakunde indigenek atzera bota zuten dekretua. Awajun eta wampis herrien prozesuaren testuinguruan, argitalpenak protesta bateratua katalizatu zuen. AW Batzorde Bereziak Dekretua beren lurren kontrola kentzeko erabiliko zela uste zuen. Gainera, haren edukia ez zen aldeztatik kontsultatu herri indigenekin, LANEREN 169. hitzarmenak eskatzen duen bezala. Barne kontsulten ondoren, abuztuaren 7an, bertako komunitateetako buruen batzarrak

⁴ Batzordekideak hauek ziren: Andrés Noningo eta Juan Nuningo, wampis herrikoak; eta Santiago Manuin, Rufino Trigoso, Antuash Chigkim eta Julio Quiacok, awajún herrikoak.

erabaki zuen AW Batzorde Berezia Condorcanqui eta Imaza probintziako Borroka Batzorde bihurtzea (Castillo Fernández, 2020).⁵

Une horretan, mobilizazio prozesu bat hasi zen, 2008 eta 2009ko Amazoniako grebetan gorpuztu zena. Protesta horiek iritzi publikoaren aurrean agertu ziren, awajun eta wampi indigenek bi azpiegitura garrantzitsu hartu eta blokeatu zituztelako: Ipar Peruko oliobideko 6. ponpaketa estazioa eta Fernando Belaunde Terry errepeidea Corral Quemado zubiaren parean, Marañon ibaiaren gainean. Errepeidea blokeatzeko, antolaketa ahalegin handia egin behar izan zen. Corral Quemado zubia, Bagua hiritik gertu, indigenen lurraldetik kanpo dago, eta milaka indigena mugitu behar izan ziren hara, asteetan zehar. Protesta horietan, herri indigenen agenda nazionalari CMAren eta Ichigkat Muja Parke Nazionalaren azaleraren murrizketaren aurkako aldarrikapenak erantsi zitzaizkion (Castillo Fernández, 2020; Durand, 2009).

2008ko abuztuko protesta Errepublikako Kongresuak 1015 Legegintzako Dekretua indargabetu zuenean amaitu zen. Awajun eta wampis herriek arrakastatzat jo zuten emaitza. Hala ere, bi gertakarik dekretu hura indargabetzearen garrantzia moteldu zuten. Alde batetik, 2009ko urtarriletik otsailera bitartean, Alan Garcíaren Gobernuak, Kongresuaren jarduketarekin pozik ez zegoenez, Basozaintza eta Basafau-nari buruzko 29317 Legea aldarrikatu zuen. Lege horrek lurren merkatuaren liberalizazioan sakontzen zuen eta, gainera, herri indigenei aurretiazko kontsulta egin beharri buruzko legea ezartzea atzeratu zuen (Castillo Fernández, 2020). Bestalde, 2009ko urtarrilaren 14an, CMAk sei langile bidali zituen miaketa lanetan jarraitzera. Huampamiko komunitatetik pasatzean, agintari komunalek meategiko langileak atxiki zituzten eta Estatuko goi mailako batzorde batekin berehala elkarriketatzeko eskatu zuten. Sei langile horien atxikipenarekin, herri-tarren eta Afroditarren arteko gatazkak nazio mailako ospea lortu zuen (Durand, 2009; ODECOFROC, 2009).

2009ko apirilean Amazoniako bigarren lanuztea hasi zen. Aur-reko urtean gertatu zen bezala, awajun herriak bere egin zuen protesta nazionaleko agenda eta CMAren jardunari, Parkea handitzeari eta kontsultarik egin gabe Hocol-i esleitutako emakidei buruzko aldarrikapenak gehitu zizkion. Urte horretan, errepeidearen itxierak 53 egun iraun zuen,

⁵ Santiago Manuin izendatu zuten Borroka Batzorde horretako buru.

eta ekainaren 5ean, Alan Garciaren gobernuak polizia eta armada bidali zituen manifestariak gaizki planifikatutako modu basatian ateratzera. Deabruaren Kurbako borrokak, Baguazoa izenez ezagunak, 33 hildako (23 polizia, bost indigena eta beste 5 zibil), 200 zauritu (82 suzko armaz) eta desagertu bat utzi zituen. Gertaerek herrialdea hunkitu zuten, nazioartean oihartzun handia izan zuten eta talde indigenen eta estatuaren arteko konfiantza erabat haustea ekarri zuten (Castillo Fernández, 2020; Caveró, 2011). Aldi berean, nazioko eta nazioarteko gizarte erakunde ugari indigenen mugimenduaren zerbitzura jarri ziren, eta horrek estatuaren aurrean zuen posizioa indartu zuen (Arellano-Yanguas, 2015).

Hilabete batzuk geroago, 2009ko abuztuan, ODECOFROCEk eta Racimos de Ungurahui GKEak Nazio Batuen Erakundeko Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeari premiazko ekintza bat egiteko eskaera aurkeztu zioten, Cenepa barrutian bizi diren awajum eta wampis herriei kalte konponezina saihesteko. Aldi berean, indigenek ultimatuma eman zioten CMARI eremutik alde egin zezan (Durand, 2009). 2010eko otsailaren 17an, Ministro Kontseiluaren Lehendakariak iragarri zuen Energia eta Meatzaritzako Inbertsioa Ikuskatzeko Erakundeak (Osinergrmin) mugarik gabe etengo zituela Kondorraren mendikateko CMAen miaketa jarduerak, ez baitzegoen ziurtatuta konpainiak lurra erabiltzeko baimena zuenik. Hala ere, CMAk miatzen jarraitu zuen eta, 2010eko maiatzean, hitzarmen bat sinatu zuen Peruko Armadarekin, mendikatera segurtasun baldintzetan iristen laguntzeko (Servindi, 2012).

Data horretatik 2019ra arte, enpresak intentsitate txikiko miaketekin batera, komunitateen aurrean legitimitatea irabazteko saiakerak eta bere interesen aldeko komunitate berriak sortzeko gestioak egin zituen. 2012 eta 2018 urteen artean, Herritarren Defentsarako Erakundearen Gizarte Gatazkei buruzko Hileko Txostenek etengabe islatzen dute hainbat gertakari izan direla CMAREN eta herritarren artean irekitako gatazkaren barruan. Indigenek batzuetan konpainiako langileak atxiki zituzten eta beste batzuetan Kondorraren mendikateko Afroditarren kanpamendura joan ziren makinak suntsitzera. Urte horietako egoera oso anbigua eta irregularra izan zen. Ofizialki, enpresak ezin zuen bere emakidetan jardun, baina tokian bertan zegoen eta Armadaren laguntza zuen (Herriaren Defentsa Erakunde, 2008-2022).

2019an, meatze emakidetatik gertu bizi ziren komunitateek salaketa bikoitza egin zuten. Alde batetik, emakidetatik hurbilen zeuden komu-

nitateek zioten CMAk sustatu zuela familia indigena batzuek komunitate berriak sortzea, legez aitortu eta izendatuak. Izan ere, Amazoniako Eskualde Gobernuak bi komunitate berri onartu zituen. Mugimendu horrek jarduteko lizentzia soziala lortzen lagunduko zion CMARI. Betiko komunitateek salatu zuten CMAk indigenen borondateak erosi zituela eta indigenen artean zatiketak sortu (Chigkun Mayan, 2019; Servindi, 2020). Halaber, komunitateek salatu zuten legez kanpoko meatzaritzak gora egin zuela inguruan eta enpresak ezikusiarena egiten zuela (Chigkun Mayan, 2019). Salaketa horiekin batera, mobilizazioak egin ziren eta, ondorioz, Amazoniako Eskualde Gobernuak komunitateak sortzeko agindua baliogabetu zuen. Aldi berean, erakunde indigenek, GKE batzuen laguntzarekin, haien artean Lege Defentsarako Institutua (IDL) nabarmentzen delarik, hainbat salaketa aurkeztu zituzten, eta lortu zuten 2022ko martxoan Amazoniako Auzitegi Nagusiak legez kanpokotzat jotzea Amazoniako Eskualde Gobernuak CMAREN alde egindako zenbait egintza administratibo. Epaiak, *de facto*, CMAREN jardueraren amaiera ekarri zuen Kondorraren mendikatean (Ruiz Molleda, 2022).

Kasuaren fase eta mugari guztien narrazio kronologikotik, gutxienez, bost ondorio ateratzen dira. Lehenik eta behin, meatze jardueraren izaera eta erregulazioa direla eta, urte asko igarotzen dira lurralde baten gaineko meatze eskubideak ematen direnetik —eta, ondorioz, eskubide horiek dituen enpresa bertan agertzen denetik— meategia modu komertzialean ustiatu arte. Aztertu dugun kasuan, 20 urte igaro dira CMA Cenepa ibaiko awajun indigenen bizitzan agertu zenetik, harik eta, oraingoz behintzat, meategi potentzial bat ustiatzeko asmoak eten diren arte. Ziurgabetasunak eta biztanleriaren eta enpresaren arteko harreman gatazkatsuak markatu dute denbora hori. Bigarrenik, CMAREN presentziak era askotako gatazkak sortu ditu bertako herritarren eta enpresaren artean eta herritarren eta nazioko eta eskualdeko gobernuen artean. Gatazka horietako batzuetan indarkeria erabili da, giza kostu handiekin. Hirugarrenik, areagotu egin da herri indigenek estatuko hainbat erakunderekiko duten mesfidantza. Indigenek esperimatu dute gobernuek, armadak eta poliziak, baita itxuraz teknikoak diren hainbat agentziak ere, hala nola INRENA, enpresen interesen alde egiten dutela, guztien ongia eta herritarren eskubideak defendatu beharrean. Laugarrenik, komunitate indigenen barruan zatiketak sustatu dira, baita gizarte erakundeen arteko batasuna garrantzitsua izan den testuinguru honetan ere. Azkenik, CMAREN presentziak meatzari

informalen presentzia katalizatu du. Meatzari informal horiek indartsu egin dira lurraldean eta herri indigenen lurraldearen osotasuna ahultzen dute.

Beraz, CMA lurraldean hogeitaz urtez egon ondoren, ez da ustiapenik egon eta miaketa jarduera urria izan da; hala ere, presentzia horrek inpaktu handiak izan ditu, bertako bizilagunen eta, zeharka, haiek zaintzen duten Amazoniako oihanaren etorkizuna baldintzatzen dutenak.

4. Libero Cobre enpresaren sarrera Mocoan (Putumayo): narratiba eta jardunbide tradizional berriak

2021eko urrian, Libero Cobre enpresak miaketa jarduerak hasi zituen Mocoa inguruan (Kolonbia), aireko azterketa geofisikoen eta lurzoruen laginketa baten bidez. 2022an, lehenengo diamante bidezko zulaketak egin ziren meatzaren aberastasuna eta hedadura ebaluatzeko. Baina Libero Cobrek 2019tik du presentzia Mocoan, eta bere helburuak eta jarduera biztanleriaren hainbat sektoreekin sozializatzekeo prozesuak egin ditu.

Emakidan utzitako eremua Mocoako landa eremuan dago, hirigunetik 10 bat kilometrora, 1000 eta 1800 m bitarteko altueran (ikusi 2. irudia). Emakidak 11.391.09 ha hartzen ditu, eta bertan daude Condagua, Ticuanoy, Las Toldas, Pueblo Viejo, Alto Afán, Montclar, San Martín eta Campucana *veredak* (El Espectador, 2018; Libero Copper, 2022). Enpresak adierazi du aire zabaleko meatze bat jartzea dela bere helburua, kobrea eta molibdenoa erauzteko, baina oraindik ezin da jakin zein den meategi motarik egokiena meatoki horren ezaugarrietarako.⁶

Libero Cobre kobreak eta haren deribatuen miaketa geologikora bideratutako konpainia bat da, eta Mocoa proiektua da Kolonbian duen proiektu bakarra. Enpresa, publikoki, Mocoa eta Putumayoko trantsizio energetikorako, garapenerako, ekonomia suspertzeko eta ingurumena kontserbatzeko aliatu gisa aurkezten da (Libero Cobre, 2022). Libero Cobre Kanadako Libero Copper enpresaren subsidiarioa da, kobreak meategien miaketan espezializatua. Kanadako horrelako en-

⁶ 2022ko otsailaren 23an Kolonbiako Libero Copperren ordezkariekin izandako elkarrizketa.

presa asko bezala, mikrojunior esaten dietenak, meategi potentzialak identifikatzen eta ebaluatzen espezializatu da. Meategiak balio komertziala badu eta ustiapen fasera pasa badaiteke, enpresa horiek askoz enpresa handiagoei saltzen dizkiete beren eskubideak, meategia ustiatzeko behar den teknologia eta finantzaketa ahalmena duten konpainiei, alegia. Libero Copperrek, Mocoako proiektuaz gain, beste hiru proiektu ditu Kanadan eta Argentinan (Libero Copper, 2022).

Enpresa honen etorrera ez zen ustekabekoa izan. 1973 eta 1977 artean, Nazio Batuek eta Ingeominasek⁷ zenbait ikerketa egin zituzten eta haiei esker jakin zuten Andeak zeharkatzen dituzten kobrezko porfidoetako bat Ekuadorretik Kolonbiako Magdalena Garaira hedatzen dela, eta Putumayoko hiriburu den Mocoako landa eremuan azalera-tzen dela (Silva Melo, 2018; UPME, 2006).

2004. urtean, Hegoafrikako Anglo Gold Ashanti konpainiari emandako miaketa emakidaren erreferentzia aurkitu da. 2008. urtean, B2Gold Kanadako enpresa publikoa sartu zen eremu horretan, Mocoa Ventures sozietate subsidiarioaren bidez. 2006 eta 2008 artean, Uriberen gobernuak bost emakida kontratu eman zizkion eremu horretan. Enpresa horiek urre hobietan zuten interesa. 2012 eta 2013 urteen artean miaketa lanak egin ziren. Ondoren, 2018ko maiatzean, Mocoa Ventures-ek Libero Cooper kanadarrari saldu zion Mocoa proiektuaren interesen %100. Libero Cooperrek ordura arte Anglo Gold Ashantiren esku zegoen emakidaren eskubideak ere bereganatu zituen. Laburbilduz, 2018an, Libero Cooperrek eremuan zeuden sei emakidak zeuzkan. Hori 11.000 ha baino gehixeago da, edo Mocoa udalerraren azalaren %7.53. Hala ere, 2022aren amaieran, enpresak berak jakinarazi du 1000 Km² baino gehiago bere izenean titulatzeko eskatu duela Mocoa proiektuaren barruan. Horrek esan nahi du hamar aldiz handiagoa dela gaur egun emakidan dagoen eremua (Libero Copper, 2022). Latinoamerikako erreferentziazko meatzeetako bat bihurtu nahi dute Mocoa proiektua eta Kolonbia Latinoamerikako hirugarren kobre ekoizle, Txile eta Peruren atzetik (Portafolio, 2022). Horretarako, enpresak nabarmendu du bertako biztanleekin harremana izateko interesa duela, elkarriketa eta errespetu printzipioetan oinarrituta, «auzokide onak» izateko (Libero Cobre, 2022).

⁷ Gaur egun, Kolonbiako Geologia Zerbitzua.

Amazoniako Mocoa proiektuaren kokapena da eztabaida sortzen duen elementuetako bat. Tradizionalki, Amazonia kolonbiarra Amazonas, Caquetá, Guainía, Guaviare, Putumayo eta Vaupés departamenduek osatzen dutela uste izan da, baita Vichada, Meta, Cauca eta Nariño departamenduetako zati batzuek ere (Salazar Cardona *et al.*, 2019). Haatik, azken urteetan karakterizazio hori istilu iturri bihurtu da. Horrela, 2014-2018 Garapen Planean, Kolonbiako Gobernuak Amazoniatik kanpo utzi zituen Putumayo, Caquetá, Vichada eta Meta departamenduak. Analista batzuen arabera, aldaketa horrek departamendu horietako erauzketa jarduerak errazteko estrategia bati erantzungo lioke (Díaz Parra, 2018). Asmo hori bat etorriko litzateke Kolonbiako Amazonian meatze emakidak handitzearekin (ohiko konfigurazioaren arabera). Era berean, aitortzen da emakidan utzitako eta/edo uzteko prozesuan dauden eremuak, batetik, babes bereziko eremuekin gainjartzen direla, hala nola parke naturalekin, indigenen *resguardo*ekin eta baso erreserbekin, eta, bestetik, ingurumen eta gizarte ikuspegitik oso hauskorak diren eremuetan daudela (Salazar Cardona *et al.*, 2019).

Testuinguru horretan, Putumayo da, Caquetá eta Guainía departamenduekin batera, meatze titulu gehien emanda dauzkan departamendua. 2011 eta 2018 urteen artean meatze eskaerak %34 igo ziren; zehazki, 67 izatetik 103 izatera igaro ziren. Era berean, eskatutako azalera %43 handitu zen, 75.786 ha-tik 132.969 ha-ra. (Salazar Cardona *et al.*, 2019). Bi faktorek eragin dute hazkunde horretan. Lehenik, 2011. urtean, meatze barruti izendatu zuten Putumayo departamendua, eta horrek nabarmen erraztu zuen meatze tituluak ematea eta, ondorioz, inbertitzaileen interesa (Avila & Sánchez Sambrano, 2014). Eskualdeko iritzi publikoko lider batzuen ustez, tituluak emate horrek kolokan jarri zuen biodibertsitate handiko lurralde baten nortasun andino-amazonikoa, zeinaren babesa bateraezina baita meatzaritzako jarduerarekin.⁸ Bigarrenik, tokiko zenbait eragileren ustetan, argi dago 2016an Bake Akordioa sinatzeak testuinguru mesedegarriagoa sortu zuela lurralde horietan inbertsioak egiteko, meatzaritzako jarduerak barne.⁹

⁸ 2022ko otsailaren 24an elkarriketa egin zitzaion Andrés Cancimance-ri, Ganberako ordezkari izateko hautagai eta, 2022ko martxoko hauteskunde orokorretatik, kongresista zenari.

⁹ 2022ko otsailaren 14an Casa Amazónica Korporazioko kideei egindako elkarriketa.

2019an, Libero Copperren presentziak komunitateek emakidak gaitzestea ekarri zuen.¹⁰ Kezka nagusiak Mocoa ibaiaren arro-burua zaintzearekin lotuta daude, eta enpresak berak aitortzen duen bezala, «Mocoa proiektuak» baso erreserba batekin gainjartzearekin (Libero Copper, 2022). Tokiko biztanleriaren zati batek erreserba handitzea sustatu du, baina Ingurumen Ministerioak ez dio eskaera horri erantzun, eta «Mocoa proiektuak» aurrera egiten badu, erreserbaren zati batek babesa gal dezake.

2020. urtearen amaieran, pandemiaren ondorioz jarduerak gelditu ondoren, Libero Copperrek proiektuari berriro ekitea erabaki zuen eta gizarte erantzukizuneko eta komunitateekiko harremaneko programan jarri zituen ahaleginak. Beraren estrategia tokiko hainbat eragilerekin alde biko harremanak sustatzea eta bere komunikazio kanpaina eskalatzea izan zen. Herritarrengana hurbiltzeko lehen ekintza bere izena gaztelaniara itzultzea izan zen: Libero Cobre. Komunikazioari dagokionez, bulegoetako ate irekien kanpainak egiten hasi ziren haien prozesuak ezagutu nahi zituztenentzat, eta publizitatea eta esku-hartzeak tokiko komunikabideetan. Tokiko gremio eta kate ekonomikoekin ere elkartu dira, hala nola azukre kanaberaren ekoizpenarekin eta turismoarekin, meatzaritzak bizitza ekonomikoa indartzeko balio dezakeela zabaltzeko.¹¹

Enpresaren aurkako taldeek ikuspegi kritikoa dute herritarrengana hurbiltzeko mugimendu horretaz. Hala, 2020. eta 2021. urteen amaieran, Libero Cobre Ekintza Komunaleko Batzordeetara (JAC) hurbildu zen, eta bilerak sustatu zituen zuzendaritzekin, bereziki proiektuarekin muga egiten duten *veredetako* zuzendaritzekin. Prozesua ezagutzen duten zenbait pertsonak adierazi dute hurbilketa horrekin batera JACen zuzentzarauen aldaketa etorri zela, eta iradoki dute enpresak eragina izan zuela hauteskunde horietan, euren aldeko hautagaiak babestuz.¹² Ildo horretan, JACen zuzendaritza berriak osatzen dituzten

¹⁰ 2022ko otsailaren 23an Kolonbiako Libero Copperren ordezkariekin izandako elkarrizketa.

¹¹ 2022ko otsailaren 23an Kolonbiako Libero Copperren ordezkariekin izandako elkarrizketa.

¹² 2022ko otsailaren 24an Andrés Cancimancerekin (Putumayoko Departamenduko ordezkaria Ordezkarien Ganberan, Itun Historikoaren Koaliziotik) izandako elkarrizketa; eta 2022ko otsailaren 24an gizarte erakundeetako boluntario batekin izandako elkarrizketa.

pertsonetako batzuk enpresarekin lan harremanak omen dituzte edo enpresarentzako zerbitzu hornitzaileak omen dira. Emaizta da JAC be-riak irekiago daudela Libero Cobrerekin akordioak egiteko, lursailak alokatzeagatiko ordainketen truke, segurtasun zerbitzuak eskaintzeko pertsonak kontratatzearen truke edo tresnak garraiatzeko mandoak alokatzearen truke.¹³ Hala ere, bizilagunen iritziak ez dira denak alde-koak, eta JACen posizionamendu hori barne banaketak eta tentsioak sortzen ari da biztanleriaren sektore desberdinen artean.¹⁴

2021. eta 2022. urteetan, enpresak lizentzia soziala lortu zuen, JACen laguntzaren bidez komunitateekiko lotura estututa. Hala, egoi-tza komunalak eraiki omen dituzte, tokiko langileak kontratatzen omen dituzte hasierako eragiketetarako, ekitaldiak diruz babesten dituzte eta erosketak bertan egiteko omen duten politikaren publizitatea egiten dute. Libero Cobrek haur eta gazteei zuzendutako kanpainak ere egin ditu, *veredetan* kirol taldeak babestuz, gazteen ekintzaitzari lagun-duz, haien jarduera ezagutarazteko jarduerak eginez eta lehiaketak an-tolatuz eta sari moduan tabletak emanez (Libero Cobre, 2022; Libero Copper, 2022). Ekintza horiek guztiak sare sozialetan zabaldu dira, non enpresak erregulariki bere jarduerak argitaratzen dituen; esaterako, 2022ko urrian, proiektuko gizarte eta komunitate etxe baten inaugura-zioa Montclar *veredaren* sarreran.¹⁵

Eskaintza materialen bidez herritarrengana hurbiltzeko estrategia horiek enpresaren jarduerari buruzko diskurtso erakargarri bat eraiki-tzearen eskutik joan dira. Enpresak energia garbiari, trantsizio energeti-koari, gizarte erantzukizunari eta eskualdeari buruzko ezagutza geolo-gikoa eraikitzeari lotutako irudia proiektatzen du. Azken horretarako, hitzarmenak ezarri eta argitaratu ditu unibertsitate zentro ospetsuekin, hala nola Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Meatze Fakultatearekin Medellingo egoitzan (Libero Copper, 2022).

¹³ 2022ko otsailaren 22an eta 23an Vereda Montclarreko biztanle batekin (nekaza-ria eta gizarte erakundeetako boluntarioa) izandako elkarrizketa.

¹⁴ 2022ko otsailaren 22an, giza eskubideen defentsarako gizarte erakunde bateko kide batekin izandako elkarrizketa.

¹⁵ Ikusi gizarte etxearen inaugurazio diskurtsoa Libero Cobreko sare sozialetan: https://www.facebook.com/watch/?ref=search&v=646142860515249&external_log_id=1dfa6f9c-0cfd-4f13-b7a7-40e057ee1fee&q=libero%20cobre

Hala ere, publizitate estrategiak arazoak sortu ditu eskualdeko komunitate indigenen sinbologia eta jaiak erabiltzeagatik. Adibidez, 2022ko otsailean, Libero Cobrek Inga eta Kamëntsa herrien festa tradizionala, *Atun Puncha/Bëtsknaté*, publizitatu zuen bere sareetan. Horren aurrean, Putumayoko Eremu Indigenen Erakundeak (OZIP) enpresari eskatu zion ez erabiltzeko bere sinbolo eta jaiak herri indigenak aliatuak direla edo haien jarduerekin bat egin dutela iradokitzeko. Haientzat *ama lurraren gorputza zulatu eta dinamitatzen duena ez da ongi etorria izango jatorrizko herrien zeremonia eta bizitzaren ospakizun honetara* (Putumayoko Eremu Indigenaren Erakundea, 2022). Komunikatu horren bidez, erakunde indigenak Libero Cobreren proiektuaren aurka agertu dira.

Herri indigenekiko desadostasunak ez dira gai sinbolikoetara mugatzen. Gairik garrantzitsuena eta ibilbide luzeena duena aurretiaz kontsulta egiteko betebeharrarekin lotuta dago. 2019an, Barne Arazoetarako Ministerioak ziurtatu zuen ez zegoela komunitate indigenarik esploratu beharreko eremuan, eta, beraz, Libero Cobre salbuetsi egin zen kontsulta egiteko erantzukizunetik. Alabaina, 2022ko irailan, erabaki hori ezeztatu egin zen prozesu judizial baten ondorioz. Prozesu horretan, Inga herriaren Condagua *resguardo* indigenak aurretiazko kontsultarako, nortasun kulturalerako, iraupenerako, determinazio askerako, lurralderako, ingurumen osasuntsurako, erabilere-tarako, ohituretarako eta kosmobisorako eskubideak babestea eskatu zuen. Epai horrek Barne Arazoetarako Ministerioko Aurretiazko Kontsultarako Agintaritz Nazionalari agindu zion egiazta zezala Libero Cobrek egindako meatze miaketako jarduerak *resguardoan* izan zezaketen eragina edo kaltea, eta erabaki zezala ea bidezkoa zen kontsulta egitea edo neurriak hartzea haren eragina arintzeko edo prebenitzeko. Egiaztapen teknikoko prozesuaren ondorioz, aurretiazko kontsulta bat egin behar izan zen, miaketa jarduerak komunitatearen egitura sozialak, espiritualak, kulturalak, osasunekoak eta bizi baliabideetakoak asaldatzen baitituzte.¹⁶

Mocoa proiektuaren garapenak ere tentsioak sortu ditu gobernu maila ezberdinen artean. Tokiko gobernuak eta departamenduko go-

¹⁶ ST-1450 Ebazpena, 2022ko irailaren 26koa - Aurretiazko Kontsultarako Agintaritz Nazionalaren Zuzendaritza, Barne Arazoetarako Ministerioa.

bernuak ez dute eskumenik meategiak esploratzeko eta ustiatzeko jarduerak onartzeko. Jarduera horiek gobernu nazionalak arautzen ditu, eta, kasu honetan, irmo babestu du proiektua. Toki mailan, 2020-2023 aldiko udal agintariak meatze jardueraren aurka daudela adierazi dute. Alkateak eta enpresak diote ez dutela proiektuari buruzko elkarrizketa biderik jarri. Alkateak azaldu du miaketa jarduerak agintari nazionalak inposatu dituztela, autodeterminaziorako eta lurralde antolamendurako eskubidea mugatuz, eta garapenaren tokiko ikuspegia kontuan hartu gabe. Udalaren jarrera tokiko gobernuaren ekintza bideratzen duen Garapen Planean eta udalerriko ondare ekologikoa eta kulturala zaintzeko eta babesteko neurriak ezartzen dituen Kontzejuaren erabakian jasota dago. Aipatutako azken dokumentu horrek metalak erauzteko meatze jarduerak berariaz debekatzen ditu eta tresna garrantzitsuak izan da herritarrek meatzaritzari aurre egiteko.¹⁷

Hala ere, Erabakiak mobilizatzeko izan duen gaitasuna ez da nahikoa izan Libero Cobrek inguruan duen jarduera geldiarazteko. Enpresak akzio juridikoak abiarazi zituen Erabakia deuseztat jotzeko, argudiatuz toki agintariak ez zutela eskumenik udalerrian jarduera horien garapena erabakitzeko eta beren funtzioak gainditu zituztela. 2022ko irailean, Mocoako Epaitegiaren epai batek deuseztasun demanda ebazti zuen, eta berretsi egin zuen udalerriak meatze jarduera debekatzeko ahalmena duela, ingurumenaren babesean oinarrituta. Beraz, Libero Cobrek lurraldean dituen jarduerak eten beharko lituzke.¹⁸ Hala ere, epai hori gorabehera, udal gobernuak mugak ditu Erabakia bete dadin defendatzeko, eta ez dago nahikoa lege bitartekorik estatu mailako erabakien aurka jarduteko.¹⁹ Udal gobernuaren eta gobernu nazionalaren arteko tentsio hori tokiko politikan ere islatzen da. Mocoa proiektuaren aurkako erresistentzia prozesuari lotutako zenbait eragilek defendatzen dute alkateak ez duela irmo jokatu publikoki egoera horren aurrean, eta horrek haren jarrerari eta irmotasunari buruzko mesfidantza sortzen du. Tokiko beste eragile batzuen ustez, Erabakia esanguratsua bada ere, agintari nazionalen eta azpinazionalen ahalme-

¹⁷ Mocoako Udal Kontzejuaren 2018ko 020 Erabakia.

¹⁸ Ikusi: Se ratifica la prohibición de la minería en Mocoa. <https://asociacionminga.co/se-ratifica-la-prohibicion-de-la-mineria-en-mocoa/>.

¹⁹ 2022ko otsailaren 23an Mocoako alkateari egindako elkarrizketa.

nen arteko desoreka benetakoa da. Tokiko botereak ezin ditu meatzaritza sustatzeko politika nazionalak indargabetu.²⁰

Aurreko paragrafoetan aztertu den bezala, Libero Cobrek Mocoan egindako ibilbidea oso laburra da oraindik. Denbora asko geratzen da mineral hobi potentzialen ustiapen komertziala egin arte, inoiz egiten bada. Hala ere, urte gutxi hauetan inpaktu sozial eta politikoak sortu dira eta, ziur asko, iraun egingo dute eta, beraz, eskualdearen etorkizuna eratuko dute. Lehenengo ondorioa biztanleen arteko zatiketa da. Alde batetik, sektore batzuek, lan aukera mugatuaren ondorioz, lanpostuak eta diru sarrerak sortzen dituen alternatiba ekonomiko gisa ikusten dute meatzaritza. Bestalde, biztanleriaren beste sektore batzuk meatzaritzaren aurkakoak dira eta lurraldearen defentsarekin konprometituta daude. Bigarrenik, meatze enpresaren esku-hartze logikak JACen zuzendaritza batzuk kooptatu ditu eta horrek mesfidantza sortu du biztanleriaren sektore batzuetan. Hirugarrenik, gobernu maila desberdinen arteko konfrontazioa sustatu da eta agerian geratu dira erakunde ofizialek legeak eta erregulazioak ulertzeko eta aplikatzeko dituzten ikuspegi desberdinak. Koherentzia falta horrek erakunde publikoen legitimitatea galarazten du azkenean. Azkenik, enpresaren jardunak berriazko eragina du miaketa emakidak esleitu diren eremuan bizi diren herri indigenengan. Enpresa haiengana hurbiltzeko moduak ez du bizikidetzak baketsurako itxaropenik sortzen.

Libero Cobrek trantsizio energetikoari eta ekonomiaren deskarbonizazioari egiten dion ekarpenari buruzko diskurtsoak Kolonbiako egungo gobernu nazionalaren mezuak errepikatzen ditu. Diskurtso horiek iritzi publiko nazionalaren aurrean bere jarduera justifikatzen laguntzen diote, baina ez eragina zuzenean jasaten duten tokiko herritarren aurrean. Zentzu horretan, enpresaren diskurtso berriek ez dituzte modu esanguratsuan aldatu miaketan diharduten meatze enpresa gazteen jardunbide tradizionalak. Ildo horretan, Libero Cobrek ez du erakutsi bere jarduera eta, beraz, eragina Kolonbiako hainbat lurraldetan 2000ko hamarkadaren hasieran sortu zuenaz bestelakoa izango denik, erauzteko eremuaren muga zabaldu egin baita *commodities* direlakoan oparotasunaren erdian.

²⁰ 2022ko otsailaren 24an Andrés Cancimancerekin (Putumayoko Departamenduko ordezkaria Ordezkarien Ganberan, Itun Historikoaren Koalizioetik) izandako elkarrizketa.

5. Ondorioak

Deskarbonizaziorako trantsizio energetikoaren beharra mineralen eskaria bultzatzen ari da. Gai batzuk, kobrea esaterako, gero eta gehiago erabiltzen direnez, meatzeak bilatu eta ustiatzeko eremuen muga zabaltzen ari da. Gauzak horrela, baliabide mineralen bilaketa Andeetako mendikatetik Amazoniako arro-buruetara mugitzen ari da. Hainbat hamarkadatan, ingurumenari kalte egin ziezaiokeelakoan, txartzat jo zuten bilaketa horrek narratiba legitimatzaile berri bat aurkitu du trantsizio energetikoan, eta hala baliatzen dute gobernuek eta meatze enpresek.

Aurretik egindako hainbat ikerketak iragarri izan dute zer-nolako zailtasunak dauden, inpaktu ekologikoaz haratago, meatzaritza politikoki eta sozialki bideragarria izan dadin Amazonian. Ingurunearen ezaugarri batzuek azaltzen dituzte zailtasun horiek. Lehenik eta behin, Amazoniako biztanleek (sarritan herri indigenetakoak) lurraldearen gaineko aurretiazko kontrol eskubideak dituzte kasu askotan. Bigarrenik, balio ekologiko handiko lurralde zabalak herrialdeetako ordenamendu juridikoko legeen babespean daude zenbait figuraren bidez. Babes hori meatze ustiapenerako interesaren aurretik dago, eta babes leuntzeko ahaleginek erantzun gogorra izaten dute. Azkenik, meatzaritzako enpresen presentziak, bizibideetan eragin negatiboa izateaz gain, tirabirak eta gatazkak sortzen ditu komunitateen barruan, komunitateen eta enpresen artean, eta gobernu maila desberdinen artean.

Aztertutako bi kasuek, Kondorraren mendikateko (Peru) CMA eta Mocoako (Kolonbia) Libero Cobre konpainienek, aurreko literaturan jasotako dinamika asko berresten dituzte. Hala ere, nolabaiteko ekarpen berria ere egiten digute. Bi kasuek hobeto ulertzen laguntzen digute nolako inpaktu negatiboak dauden enpresa batek lurralde batekiko interesa agertzen duenetik meategi bat eraiki eta mineralak ateratzen hasten den arte igarotzen den denbora tarte luzean. Kasu askotan, aldi horretako elkarreraginak erabakitzen du meatze jarduera potentzialaren etorkizuna. CMAREN kasuan, 20 urte baino gehiagoko elkarreragin gatazkatsuen ondoren, jarduteko lizentzia sozialik ez izateak eragiketaren garapena geldiarazi du. Libero Cobreren kasuan, presentzia oso berria da, baina dagoeneko agertzen hasita daude beste inbertsio batzuk geldiarazi dituzten harreman arazo-

tsuetako batzuk. Bi kasuek erakusten digute, elkarreraginaren azken emaitzak direnak direla, gizarte harremanen eta erakundeen gaineko inpaktu negatiboek lurralde horien etorkizuna problematizatzeko gaitasuna dutela.

Bi kasuetan, gatazka da meatzaritzako proiektuen inguruko interes desberdinen adierazpena. CMAREN kasuan, gatazkek indarke-riazko liskarrak eragin dituzte, eta sufrimenduaz eta bizitza kostuaz gain, kapital soziala suntsitzea eta erakunde publikoak deslegitimatzeari ekarri dute. Erakunde publikoen deslegitimazioa are handiagoa da lurraldeen aberastasun ekologikoa eta herri indigenen eskubideak babesteko irizpideetan koherentziarik ez dagoelako. Bai Perun, bai Kolonbian, bi lurraldeek dute nolabaiteko babes legala, baina, azken batean, gobernuak inbertsio beharraren mende jarri nahi du babes hori, eta, bi kasuetan, herri indigenei galdetzeko beharra alde batera utzi nahi da.

Erakundeak deslegitimatzeari eta, ondorioz, haiekiko konfiantza galtzeari gain, meatzaritzako enpresen presentziak zatiketarik sortzen ditu tokiko herritarren artean. Iritzi eta interes desberdinak egotea normala eta espero daitekeena den arren, kezagarria da enpresek zatiketarik horiek sustatzeko eta sakontzeko ahaleginak egitea, beren asmoei aurre egiteko ekintza kolektiborako gaitasuna hausteko. Estrategia hori oso aspaldikoa da erazketaren sektorean, eta, azkenean, dinamika negatiboak sortzen ditu epe luzean.

Azkenik, meatzaritza informala areagotzen ari denez, batez ere alu-bioi-urrearena, meatzaritza proiektuen presentziak meatzari informalak erakar ditzake lurraldera, eta arazo erantsi bihurtu. CMAREN kasuan gertatu den bezala, indigenek enpresaren asmoak geldiarazteko duten ahalmenak ez du lurraldea meatze jardueratik erabat askatu. Izan ere, meatzari informalen presentzia ere arazo larria da, gutxienez, bai ingurumenerako, bai herri indigenek lurraldea kontrolatzeko duten ahalme-nerako.

Ikuspegi positibo batetik, bi kasuek erakusten digute tokiko biztanleek gaitasuna dutela estatuko funtzionario eta erakunde batzuekin eta gizarte erakundeekin lankidetzara harremanak ehuntzeko. Oraindik urte batzuk itxaron beharko dira ikusteko prozesuan zehar ahalmen horrek eta eragileek ikasitakoak zenbateraino lagunduko duten hautemandako inpaktu negatiboak gainditzeko.

Bibliografia

- Arce, M. (2014). *Resource extraction and protest in Peru*. University of Pittsburgh Press.
- Arellano-Yanguas, J. (2011a). Aggravating the resource curse: decentralisation, mining and conflict in Peru. *Journal of Development Studies*, 47(4), 617-638.
- Arellano-Yanguas, J. (2011b). *¿Minería sin fronteras? Conflicto y desarrollo en regiones mineras de Perú*. IEP eta PUCP.
- Arellano-Yanguas, J. (2015). From preaching to listening: extractive industries, communities, and the Church in rural Peru. En A. Wilde (Ed.), *Religious responses to violence* (311-338). University of Notre Dame Press.
- Arellano-Yanguas, J. (2019). Extractive industries and regional development: Lessons from Peru on the limitations of revenue devolution to producing regions. *Regional & Federal Studies*, 29(2), 249-273.
- Arellano-Yanguas, J., & Bernal-Gómez, M. d. P. (2017). Partnerships for development in the extractive sector: protecting subterranean interests? *Journal of Environmental Policy & Planning*, 19(3), 251-265.
- Avila, A., & Sánchez Sambrano, E. (2014, otsailak 24). *Fundación Paz y Reconciliación: Departamento de Putumayo (Tercera Monografía)*. <https://www.las2orillas.co/wp-content/uploads/2014/02/PUTUMAYO-INFORME-PAZ-Y-RECONCILIACION.pdf>
- Bebbington, A. (2007). *Mining and development in Peru*. Peru Support Group.
- Bebbington, A. (2012). *Social conflict, economic development and the extractive industry: evidence from South America*. Routledge.
- Bebbington, A., & Bury, J. (2013). *Subterranean Struggles: new geographies of extractive industries in Latin America*. University of Texas Press, Austin.
- Bebbington, A., Hinojosa, L., Humphreys-Bebbington, D., Burneo, M. L., & Warnaars, X. (2008). Contention and ambiguity: mining and the possibilities of development. *Development and Change*, 39(6), 887-914.
- Bebbington, A., & Humphreys Bebbington, D. (2018). Mining, movements and sustainable development: Concepts for a framework. *Sustainable Development*, 26(5), 441-449.
- Castillo Fernández, M. (2020). *Pueblos awajún y wampis, antes y después del «Baguazo»*. CooperAcción, SAIPE.
- Castillo Guzmán, G. (2020). *Local Experiences of Mining in Peru: Social and Spatial Transformations in the Andes*. Routledge.
- Cavero, O. (2011). *Después del Baguazo: informes, diálogo y debates*. Pontificia Universidad Católica del Perú.

- Cruz, T. L., Matlaba, V. J., Mota, J. A., & Filipe dos Santos, J. (2021). Measuring the social license to operate of the mining industry in an Amazonian town: A case study of Canaã dos Carajás, Brazil. *Resources Policy*, 74, 101892.
- Defensoría del Pueblo. (2008-2022). *Reporte Mensual de Conflictos Sociales n° 58-225*. https://www.defensoria.gob.pe/categorias_de_documentos/reportes/page/2/
- Díaz Parra, K. (2018). *¿Qué implica que el Caquetá vuelva a ser integralmente amazónico y protector del agua?* Semana Sostenible. 2022ko abenduaren 29an jaitsia webgune honetatik: <https://www.ambienteysociedad.org.co/que-implica-que-el-caqueta-vuelva-a-ser-integralmente-amazonico-y-protector-del-agua/>
- Durand, A. (2009). *¿Tierras de nadie? Empresas extractivas, territorio y conflictividad social en el río Cenepa*. CISEPA-PUCP.
- El Espectador. (2018, maiatzak 11). La amenaza minera en el Alto Putumayo. *El Espectador*. <https://www.elespectador.com/ambiente/la-amenaza-minera-en-el-alto-putumayo-article-755078/>
- Flemmer, R., & Schilling-Vacaflor, A. (2016). Unfulfilled promises of the consultation approach: the limits to effective indigenous participation in Bolivia's and Peru's extractive industries. *Third World Quarterly*, 37(1), 172-188.
- Franks, D., Davis, R., Bebbington, A., Ali, S., Kemp, D., & Scurrah, M. (2014). Conflict translates environmental and social risk into business costs. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 111(21), 7576-7581.
- García, L., & Laura, R. (2026, apirilak 22). *Negociado de frontera*. IDL. Abenduaren 28an jaitsia webgune honetati: <https://www.idl-reporteros.pe/negociado-de-frontera/>
- Gudynas, E. (2009). Diez tesis urgentes sobre el nuevo extractivismo. In J. Schuldts & A. Acosta (Eds.), *Extractivismo, política y sociedad*. CAAP.
- Haslam, P. A., & Ary Tanimoune, N. (2016). The determinants of social conflict in the Latin American mining sector: new evidence with quantitative data. *World Development*, 78, 401-419.
- Himley, M. (2013). Regularizing extraction in Andean Peru: mining and social mobilization in an age of corporate social responsibility. *Antipode*, 45(2), 394-416.
- Huber, L. (2009). Antamina: licencia social y conflicto de baja intensidad. In J. Echave de, A. Diez, L. Huber, B. Revesz, X. Ricard, & M. Tanaka (Arg.), *Miñería y conflicto social*. IEP.
- ICMM. (2012). *Mining's contribution to sustainable development: an overview*. International Council on Mining&Metals.
- Imai, S., Gardner, L., & Weinberger, S. (2017). The «Canada Brand»: Violence and Canadian Mining Companies in Latin America. *Osgoode Legal Studies Research Paper*(17).

- Kröger, M. (2021). *Iron will: Global extractivism and mining resistance in Brazil and India*. University of Michigan Press.
- Kupchik, C. (2008). *La leyenda de El Dorado y otros mitos del descubrimiento de América*. Nowtilus.
- Liberó Cobre. (2022). *Presentación Liberó Cobre*. 2022ko abenduaren 28an jaitsia webgune honetatik: <https://www.liberocobre.com/>
- Liberó Copper. (2022, azaroa). *Unlocking value: large scale strategic porphyry copper deposits in the Americas*. Liberó Copper. 2022ko abenduaren 28an jaitsia webgune honetatik: https://www.liberocopper.com/_resources/presentations/corporate-presentation.pdf?v=0.334
- López-Cazar, I., Papyrakis, E., & Pellegrini, L. (2021). The extractive industries transparency initiative (EITI) and corruption in Latin America: Evidence from Colombia, Guatemala, Honduras, Peru, and Trinidad and Tobago. *Resources Policy*, 70, 101907.
- Martínez-Alier, J. (2012). Mining conflicts, environmental justice and valuation. En R. Bullard, J. Agyeman, & B. Evans (Arg.), *Just sustainabilities: development in an unequal world* (214-241). Routledge.
- Martínez-Alier, J. (2021). Mapping ecological distribution conflicts: The EJAtlas. *The Extractive Industries and Society*, 8(4), 100883.
- Martínez Alier, J. (2015). Ecología política del extractivismo y justicia socio-ambiental. *Interdisciplina*, 3(7), 57-73.
- Matlaba, V., Mota, J. A., Maneschy, M. C., & dos Santos, J. F. (2017). Social perception at the onset of a mining development in Eastern Amazonia, Brazil. *Resources Policy*, 54, 157-166.
- Mestanza-Ramón, C., Cuenca-Cumbicus, J., D'Orío, G., Flores-Toala, J., Segovia-Cáceres, S., Bonilla-Bonilla, A., & Straface, S. (2022). Gold Mining in the Amazon Region of Ecuador: History and a Review of Its Socio-Environmental Impacts. *Land*, 11(2), 221.
- ODECOFROC. (2009). *Perú, crónica de un engaño: los intentos de enajenación del territorio fronterizo Awajún en la Cordillera del Cóndor a favor de la minería*. IWGIA.
- Organización Zonal Indígena del Putumayo. (2022, martxoak 2). *Pronunciamento de rechazo frente a las actividades de la empresa Liberó Cobre* <https://conexionputumayo.com/pueblos-indigenas-molestos-por-uso-de-imagen-del-betsknate-en-redes-sociales-de-la-minera-libero-cobre/>
- Orihuela, J. C., Cavero, C. P., & Contreras, C. (2022). Extractivism of the poor: Natural resource commodification and its discontents. *The Extractive Industries and Society*, 9, 100986.
- Pereira Covre, W., Junio Ramos, S. J., Valter da Silverira Pereira, W., Santos de Souza, E., Caixeta Martins, G., Marques Teixeira, O. M., Bastos do Ama-

- rante, C., Nunes Dias, Y., & Rodrigues Fernandes, A. (2022). Impact of copper mining wastes in the Amazon: Properties and risks to environment and human health. *Journal of Hazardous Materials*, 421, 126688.
- Perla, C. (2012). *Extracting from the extractors: The politics of private welfare in the Peruvian mining industry*. Brown University Providence.
- Portafolio. (2022, irailak 30). Los avances del proyecto Mocoa para la producción de cobre en el país. *Portafolio*. <https://www.portafolio.co/economia/finanzas/los-avances-del-proyecto-mocoa-para-la-produccion-de-cobre-en-el-pais-571897>
- Prno, J., & Slocombe, S. (2012). Exploring the origins of «social license to operate» in the mining sector: Perspectives from governance and sustainability theories. *Resources Policy*, 37(3), 346-357.
- Quijano Vallejos, P., Veit, P., Tipula, P., & Reytar, K. (2020). *Undermining rights: Indigenous lands and mining in the Amazon*. World Resource Institute.
- Quiliconi, C., & Rodriguez Vasco, P. (2021). *Chinese mining and indigenous resistance in Ecuador*. Carnegie Endowment for International Peace.
- Ramos-Cortez, C., & MacNeill, T. (2022). Challenging the «absent state»: Neoliberal extractivist governance and state effects in the northwest Peruvian Amazon. *Political Geography*, 98, 102720.
- Rasch, E. D. (2017). Citizens, criminalization and violence in natural resource conflicts in Latin America. *European Review of Latin American and Caribbean Studies/Revista Europea de Estudios Latinoamericanos y del Caribe*(103), 131-142.
- Red Amazónica de Información Socioambiental Georreferenciada. (2018). *La Amazonía saqueada*. 2021eko urriaren 31n jaitsia webgune honetatik: <https://minerialegal.amazoniasocioambiental.org/>
- Regis Florisbelo, G., & Guijt, I. (2004). Participatory municipal development plans in Brazil: divergent partners constructing common futures. En S. Hickey & G. Mohan (Eds.), *Participation: from tyranny to transformation?* Zed Books.
- Ruiz Molleda, J. C. (2022, martxoak 29). *Awajun del Cenepa le gana sentencia a minera Afrodita e impide minería en cabecera de cuenca*. 2022ko abenduaren 28an jaitsia webgune honetatik: <https://iuslatin.pe/awajun-del-cenepa-le-gana-sentencia-a-minera-afrodita-e-impide-mineria-en-cabecera-de-cuenca%EF%BF%BC/>
- Salas Carreño, G. (2008). *Dinámica social y minería: familias pastoras de puna y la presencia del proyecto Antamina (1997-2002)*. Instituto de Estudios Peruanos.
- Salazar Cardona, C. A., Riaño Martínez, A., Reyes, M. A., Riaño Umbarila, E., Castañeda Hernández, W., Rubiano, S., & Rodríguez, C. (2019). *Minería: impactos sociales en la Amazonía*. Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas.

- Salomons, W. (1995, 1995/01/01/). Environmental impact of metals derived from mining activities: Processes, predictions, prevention. *Journal of Geochemical Exploration*, 52(1), 5-23.
- Sanderson, H. (2022). *Volt rush: the winners and losers in the race to go green*. Oneworld Publications.
- Sawyer, S., & Gomez, E. T. (2008). *Transnational governmentality and resource extraction: Indigenous peoples, multinational corporations, multilateral institutions and the state*. UNRISD.
- Schilling-Vacaflor, A., Flemmer, R., & Hujber, A. (2018). Contesting the hydrocarbon frontiers: state depoliticizing practices and local responses in Peru. *World Development*, 108, 74-85.
- Schilling-Vacaflor, A., & Eichler, J. (2017). The shady side of consultation and compensation: «Divide-and-rule» tactics in Bolivia»s extraction sector. *Development and Change*, 48(6), 1439-1463.
- Science Panel for the Amazon. (2021a). *Chapter 10: Critical interconnections between the cultural and biological diversity of Amazonian peoples and ecosystems*. United Nations Sustainable Development.
- Science Panel for the Amazon. (2021b). *Chapter 19 in Brief: Drivers and ecological impacts of deforestation and forest degradation*. United Nations Development Program
- Servindi. (2012). *Perú: Convenio entre el Ejército peruano y minera Afroditas es inconstitucional*. Servindi. 2022ko abenduaren 27an jaitsia webgune hone-tatik: <https://www.servindi.org/actualidad/78388>
- Servindi. (2020, urtarrilak 13). *Pueblo Awajún resiste a nuevo embate de minera Afroditas*. 2022ko abenduaren 28an jaitsia webgune hone-tatik: <https://www.servindi.org/actualidad-noticias/13/02/2020/pueblo-awajun-resiste-nueva-amenaza-de-minera-afrodita>
- Silva Melo, P. (2018, azaroak 10). La pelea de dos décadas que tiene en vilo el futuro de las montañas de Mocoa. *El Espectador*. <https://www.elespectador.com/ambiente/la-pelea-de-dos-decadas-que-tiene-en-vilo-el-futuro-de-las-montanas-de-mocoa-article-822899/#comments>
- Siqueira-Gay, J., Sonter, L. J., & Sánchez, L. E. (2020, 2020/08/01/). Exploring potential impacts of mining on forest loss and fragmentation within a biodiverse region of Brazil»s northeastern Amazon. *Resources Policy*, 67, 101662.
- Triscritti, F. (2013, uztailak 1). Mining, development and corporate–community conflicts in Peru. *Community Development Journal*, 48(3), 437-450.
- Ullan de la Rosa, F. J. (2004). La era del caucho en el Amazonas (1870-1920): modelos de explotación y relaciones sociales de producción. *Anales del Museo de América*(12), 183-204.

- UPME. (2006). *Colombia país minero: Plan Nacional para el desarrollo minero*. Unidad de Planeación Minero Energética.
- Vera, E. (2020, azaroak 9). *Parque Nacional Ichigkat Muja: la historia del área protegida que nació incompleta*. Mongabay Latam. 2022ko abenduaren 28an jaitsia webgune honetatik: <https://es.mongabay.com/2020/11/cordillera-del-condor-mineria-ilegal-parque-ichigkat-muja-peru/>
- Walker, C. (1987). El uso oficial de la selva en el Perú republicano. *Amazonía peruana*(14), 61-89.
- Walter, M., & Wagner, L. (2021). Mining struggles in Argentina. The keys of a successful story of mobilisation. *The Extractive Industries and Society*, 8(4), 100940.
- Warnaars, X. (2012). Why be poor when we can be rich? Constructing responsible mining in El Pangui, Ecuador. *Resources Policy*, 37(2), 223-232.
- Wasylycia-Leis, J., Fitzpatrick, P., & Fonseca, A. (2014, 2014/03/01). Mining Communities from a Resilience Perspective: Managing Disturbance and Vulnerability in Itabira, Brazil. *Environmental Management*, 53(3), 481-495.
- Watson, R., Baste, I., Larigauderie, A., Leadley, P., Pascual, U., Baptiste, B., Demissew, S., Dziba, L., Erpul, G., & Fazel, A. (2019). *Global assessment report on biodiversity and ecosystem services*. IPBES.
- Wright, C., & Tomaselli, A. (Arg.). (2019). *The Prior Consultation of Indigenous Peoples in Latin America: Inside the Implementation Gap*. Routledge.

2. zatia

Amazoniako meatze eragiketei aurre egiteko estrategiak: Mocoa proiektuaren kasua (Kolonbia)

Asier Martínez de Bringas eta Gorka Urrutia

1. Erresistentziaren problematikaren testuingurua

Amazonia eta bere defentsa oso garrantzitsuak dira gizateriarentzat, planetako oihan tropikal hezerik handiena delako. Amazoniaren dimentsio estrategikoa karbonoaren zikloa erregulatzeko ahalmenean datza; berak definitzen du neurri handi batean klima globala. Halaber, funtsezkoa da planetako balantze hidroklimatikoaren erregulatzeko, eta bizidun komunitate askoren biziraupena bermatzeko, batez ere herri indigenena. Hala ere, Amazonia planetako ekosistema kalteberenetako bat da, deforestazio eta desertifikazio arriskuen ondorioz. Gauzak horrela, Mocoa proiektua Kolonbiako Amazonian eragiten ari den inpaktua aztertzea interesatzen zaigu, Amazonia osoaren zati estrategikoa baita.

Estraktibismoak eta meatzaritzak, espezifikoki, Amazoniako ekosistema ahuldu eta izugarri kaltebera egiten dute, eta komunitateen (batez ere herri indigenen) portaera eta ohitura kulturalak aldarazten dituzte. Izan ere, segurtasun dinamikak errotik aldatzen dituzte, ustategien inguruko eremuetan errentak bilatuz; ingurune naturalean eta kulturean

eragin handia duten jarduerak sortzen dituzte, eta, horren ondorioz, lurralde horietako biztanleen bizi, osasun eta garapen baldintzak kaltetzen dituzte, baita diru-sarrerak lortzeko aukerak ere. Beraz, meatzaritzako proiektu jasangarriak aurrera eramateak estrategia egokiak garatzea eskatzen du: segurtasun eta kontrolerako estrategia, batetik, eta integrazio sozial eta ekonomikorako estrategia, bestetik. Inpaktuak (kalteak) mehatxu, arrisku eta ahultasunen eskema zabalago baten barruan integratu behar dira, meatzaritza nolako testuinguruan gertatzen den ondo ezagutzeko, Amazoniako biztanleriaren bizi baldintzak eta gobernantza hobetzeko, eta herrialdeko zirkuitu ekonomikoetatik urrunen dauden sektoreak integartzeko (Valdés *et al.*, 2019; SINCHI, 2019).

Ikergaia —Mocoa proiektua— miaketa fasean dago. Proiektu berria denez, une honetan ez dugu oso informazio zehatza meategiaren miaketa fasea nola egingo den, are gutxiago ustiapen fasea. Aurreikustekoa da etorkizun hurbilean inpaktu handiak izango direla lurraldean meaturteko bideak eta azpiegiturak jartzeko. Oraingoz, Libero Cobre enpresaren presentzia tentsio eta gatazka handiak sortzen ari da lurraldean eta komunitateak eta sektoreak zatitzen ari da. Bada sektore garrantzitsu bat (ekintza komunaleko batzorde batzuen inguruan antolatua) Libero Cobreako jardueri aurre egiten diena, ekosisteman inpaktu handia duelako; izan ere, proiektua bateraezina da baso-erreserbarekin eta indigenen «resguardo»ekin. Prozesu horretan guztian salatzen dute, gainera, ez dagoela informazio egiaztaturik eremuko inpaktu ekologikoei buruz, eta bertako biztanleen artean harreman ez oso gardenak eta tirabiratsuak sortu direla. Hala ere, sektore batzuei Libero Cobreren presentzia aukera ona iruditzen zaie lurraldeko biztanleentzat, besteak beste lan aukerak izango dituztelakoan. Horregatik, erresistentzien eraketari begira, garrantzitsua da azpimarratzea Mocoako lurraldeko biztanleen artean barne tentsio sakona dagoela —komunitatearen barruko tentsioa—. Hortaz, zaila litzateke erresistentzia eredu edo paradigma bakarrari buruz hitz egitea, erresistentziak forma eta estrategia desberdinak hartzen baititu (adibidez, ekintza komunaleko batzordeek antolatutakoak; edo herri indigenek bideratutakoak). Baina Mocoan erresistentzia adierazteko modu desberdin horietan ere tentsioak daude, ekintza komunaleko batzordeetan bertan hausturak eta kooptazio prozesuak daudelako, eta komunitate indigenen barruan eta haien liderren artean ere desadostasunak daudelako.

Mocoan, Amazoniako oparotasuna ustiatzeari aurre egiteko estrategia orok hiru erlazio mota hartu behar ditu kontuan: i) oparotasuna-

ren eta tokiko agintarien eta gobernu erregimenen arteko harremana, eta horiek nola errazten eta ahalbidetzen duten edo ez duten aberastasuna banatzea, bertako biztanle gehienengoz ongizatea sustatzeko eta ez eliteena bakarrik; ii) ugaritasunaren eta gatazka politikoaren arteko harremana; izan ere, lortzen diren errentek gatazkaren kausak sakontzen laguntzen dute eta lehia geldiezina sortzen da meatzeak dauden lurraldeetan gatazkan dauden taldeen artean; iii) gobernuen eta inbertitzaile pribatuaren arteko harremana, estraktibismoaren finkapena zer neurritan sustatzen eta errazten duten aztertzeko (Salazar eta Reyes, 2015).

Erresistentzia proposatzeko agenda orok, eraginkorra eta eraldatzailea izan nahi badu, baldintza hauek bete beharko ditu: i) meatzaritzaren komertzializazio-katearen egitura aztertu beharko du, kate hori desegiterra bideratutako ekintzak garatzeko, kate horren balioaren zatirik gorenari eraso eginez, bai eta aberastasuna metatzea eta lurraldearen degradazioa ahalbidetzen duten estrategiei ere. Horrek esan nahi du sakon aztertu behar dela gobernu erakundeek zer rol duten jarduera horien sustapenean eta nolako irabaziak ateratzen dituzten; ii) Amazoniako lurralde antolamenduak dituen potentzialtasunak eta ahultasunak ulertu behar dira, eta bitarteko eta tresna egokiak proposatu, bertan bizi diren komunitateak integratzeko, onura izateko eta garatzeko, erauzketa-enklabeak eta lurraldeen degradazio ekologiko, kultural, sozial, ekonomiko eta politikora kondentzen duen instituzionaltasuna gaindituz. Analisirako bi gako horiek fase esperimentalean daude oraindik Mocoan, eta askoz sakonago garatu behar dira. Ildo horretan, ikerketa eta inbertsio gehiago egin beharko dira etorkizunean, meatzaritzak datozen urteetan Mocoan izango duen egiturazko inpaktuaren jarraipen analitiko sakona egiteko, eta auzigai estrategikoko eta lurralde erresistentziako ekintzak sortzeko, Amazoniako beste leku batzuetan eta beste estatu batzuetan gertatu den bezala. (Sinchí, 2015; 2018; 2019).

Lan honen beste zati batean esan den bezala, erresistentzia mugimenduek fisonomia hirukoitza izan ohi dute. Lehena, tokiko oposizioak meatze jardueraren aurkako erresistentzia mugimenduak eragitea, eta, ondorioz, enpresek beren planak bertan behera uztea (Kröger, 2021; Martínez Alier, 2015; Walter & Wagner, 2021). Ez da oso ohikoa izaten. Bigarrena, tokiko biztanleek meatze jarduera behar izatea eta biztanleen eta meatzaritza enpresen arteko istilurik ez egotea. Hirugarrena, erauzketa egiten den lurraldeetan bizi diren tokiko komunitateen barruan interes eta ikuspegi desberdinak eta hausturak egotea (Arellano-Yanguas,

2011b; Orihuela *et al.*, 2022). Nahiz eta askotan hiru bertsoiak tartekatzen diren, lan honen helburuetarako batez ere meatzaritzarekiko erresistentzia (lehen fisonomia) interesatzen zaigu, hirugarrenarekin konbinatuta. Gogora dezagun Libero Cobre enpresa Mocoan egotearen ondorioz, komunitatearen barruko haustura garrantzitsu batetik abiatzen garela. Lurraldea babesteko eta bereganatzeko mekanismoak berraktibitzea eta sortzea funtsezko baliabidea da komunitate eta herri indigenen interesak ulertu eta defendatu ahal izateko, ekoizle kolektibo gisa, erauzketaren eta meategien mehatxuen kontra, komunitatea lurgabetzeko prozesu gisa funtzionatzen dutenez gero. Hala gertatzen da Mocoaren kasuan. Indigenen autonomia ereduak ezartzea funtsezkoa da lurraldean bizitzeko moduak ulertzeko, meatzaritzak lurraldean eragiten dituen mehatxuak azalarazteko, herri indigenen gainean sortzen diren kriminalizazio dinamikak azaltzeko, eta horretarako beharrezkoak diren defentsa estrategiak ikusarazteko (Escárzaga *et al.*, 2020).

Herri indigenek duten lurraldearen kontrola eta ezaguera, eta Mocoan giza bizitzarako zailak diren baldintza ekologikoetarako egokiak diren ekoizpen teknikak nahitaez eramaten dira antolaketa eta borroka eta erresistentzia estrategietara. Amazoniako indigenen erresistentzia prozesuetan (Martinez de Bringas, 2021), komunitateko kide guztien (emakumeak, gazteak eta zaharrak) ahalmen produktiboa aprobetxatzen da, baita borrokarako dituzten gaitasunak ere; izan ere, emakumeek denentzako lapikoak prestatzen dituzte, haurrek *txaski* (mezulari) lana betetzen dute eta guztiek parte hartzen dute komunitateen gaueko zaintzan, Peruko nekazarien errondetan ere gertatzen den bezala. Lurraldearen ezaugarriak, haien ezagutza eta bertan mugitzeko gaitasuna ere baliatzen dira; esaterako, indigenek animalien soinuak imitatzen zituztenean petrolio enpresetako langileak beldurtu eta uxatzeko (Martinez de Bringas, 2021). Dinamika horietako batzuk Mocoakourraldean egituratzen hasi dira, ekintza komunaleko batzordeen, herri indigenen eta Libero Cobrearen aurkako beste eragile batzuen bitartez.

2. Kolonbiako Amazonian indigenen lurralde eskubideak indartzearen garrantzia

Kolonbiako kasuan, Amazoniako komunitateen lurralde eskubideek eta Estatuak eskualde horretan ingurumena babesteko dituen betebeha-

rrek baldintzatzen dute meatzaritzaren legeria. 1991ko Kolonbiako Konstituzioak indigenen lurralde eta politika autonomia aitortzen du (286, 287, 288, 290, 321 eta 329), baita indigenen jurisdikzioa (246), hizkuntza eskubideak (10) eta aurretiazko kontsulta ere (330). Konstituzio horretatik, komunitate indigenen eskubideak babestu eta aitortzeko lege eta jurisprudentziaren garapen garrantzitsua ondorioztatzen da. Horri esker, aurrera egin ahal izan da kulturalki askotarikoa den Estatu baten eraikuntzan, Amazoniako herri eta komunitateentzako autonomia ziurtatuz.

Lurralde eskubideak lotura estua du autonomiarako eskubidearekin, garapen propiorako eskubidearekin eta lurrak eta bertako baliabideak eskuratzeko eskubidearekin. Eskubide horiek nazioarteko hainbat tresnatan aitortu dira, hala nola 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen 2007ko Adierazpenean, LANEren 169. hitzarmenean, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunean (1. eta 27. artikulua) eta Arraza Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioan (5.d artikulua). Barne eremuan, 1991ko Konstituzioa eta 1991ko 21 Legea dira, Kolonbiako Konstituzio Gortearen jurisprudentziarekin batera, funtsean, komunitate indigenentzako lurralde eskubideen aitortzea gauzatu dutenak.

Kolonbiak tokiko gobernantzaren defentsan egin duen aurrerapen handienetako bat izan da «resguardo» indigenak aitortzea autogobernurako eta lurralde kolektiborako eskubideen barruan (Hernández, 2015). 329. artikulua indigenen erresistentziak artikulatzeko garrantzi handia duen baieztapen bat egiten du; izan ere, «resguardo» indigenak jabetza kolektibokoak eta besterenezinak direla onartzen du. 63. artikulua, Parke Naturalen legeriarekin batera, ezartzen du erabilera publikoko ondasunak, Nazioaren ondare arkeologikoa eta «resguardo» indigenak ondasun besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak direla, eta transakzio komertzial orotatik kanpo geratzen direla. Kolonbiako Konstituzio Gorteak berak ezarri du indigenen lurralde kolektiboa askoz ere zabalagoa dela Estatuak ulertzen eta onartzen duena baino, eta ez dela tituluaren formaltasunik behar lurraldetasuna aitortu eta eratu ahal izateko¹.

¹ Konstituzio Gortea irrimintzatu da honako hau esatean: «(...) agerikoa da ordenamendu juridiko konstituzionalak herri indigenentzako babes garrantzitsuak eta espezifikoak jasotzen dituela, herri indigenei beren lurraldeen gaineko eskubideak emanaz eta «resguardo»ak eta lurralde indigenak bikain definituz, azken horiek indigenen in-

«Resguardo»ek lurraldearekiko eskubide kolektiboaren aitortpena hezuramaitzen badute ere, ez dira antolaketa politiko eta administrati-boa. Lurraren *per se* titulazioak ez du lurralde entitate bat eratzen, komunitate indigenei agintaritzza publikoaren funtzioak ematen dizkiena. Konstituzioak indigenen autonomiarako eta autogobernurako eskubi-dea onartu zuen bere agintari eta erakundeen bitartez, lurraldea eta antolaketa soziokulturala egitura politiko eta administratiboarekin bat etorrarazi nahian, Lurralde Entitate Indigenen bitartez —ETI— (329. artikulua). Hala, lurralde araubide berri bat ezarri nahi zen, eta lurralde indigenak lurralde entitate bihurtuko ziren toki-mailan, alegia, udalerrien eta barrutien maila berean. Xedapen konstituzional hori geroago arautzeko geratu zen, Lurralde Antolamenduaren Lege Organikoaren —LOOT— bidez, eta 20 urte baino gehiago itxaron ondoren, 2012an argitaratu zen azkenean (1454 Legea). Hala ere, 2012ko LOOTak ez zituen arautu lurralde entitate indigenak. Arau hutsune horrek eragotzi egin du indigenen autonomia eta autogobernua benetan gauzatzea. Izan ere, agintari indigenek aurre egin behar diete lurraldeko antola-keta politiko-administratiboko beste figura batzuei, hala nola guber-nazioei; izan ere, eskualde mailako agintariak diren arren, udalerrien —tokiko agintarien— eginkizunak hartu dituzte transferentziako ba-liabideak erabiltzeko, baita, kasu batzuetan, lurraldearen antolamen-duan ere. Horrela aitortzen da lurraldea «resguardo»aren bidez, baina ez dago arau garbirik «resguardo» horiek nola funtzionatzen duten ja-kiteko, termino politiko-administratiboetan, nazio, eskualde eta toki mailan. Hutsune politiko-administratibo hori bereziki deigarria da Ama-sonian, zeren Guanian eta Vaupesen ez baita lurralde entitaterik sortu. 1991 baino lehen, Amazoniako eskualdea lurralde nazionalen zatitzat hartzen zen, eta Gobernu Zentralak administratzen zuen gobernadore edo korrejidoreen bidez (Guio *et al.* 2015; Cayón *et al.*, 2008). Hori dela eta, Amazoniako lurraldearen zati handi bat «corregimiento de-partamental» kategoriapean araututa egon da, nahiz eta Gorte Konstituzionalak figura hori Konstituzioaren aurkakotzat jo duen 2001. ur-teaz geroztik (2001eko C-141), eta behin baino gehiagotan eskatu

teresak, eskubideak, funtzio eta eskumen politikoak kudeatzeko autonomia duten lu-rralde entitate gisa» (T-01 epaia, 2019). Lurraldearen definizioari dagokionez, ikusi epai hauek: T-547, 2010ekoa, Konstituzio Gortearena; Amerikarteko Giza Eskubideen Gor-tea, kasuak: Awas Tingni vs. Nikaragua, 2001; Yakye Axa vs. Paraguai, 2004; Moiwana vs. Surinam, 2005; Saramaka vs. Surinam, 2007; Sarayaku vs. Ekuador, 2012.

izan dien Kongresuari eta Gobernuari gaia arautzeko. Amazoniako herri indigenek askoz ere zailtasun handiagoak izan dituzte herrialdeko gainerako herritarrek baino transferentziako baliabideak maneiatzeko, kudeatzeko eta lurraldeko baliabideak erabiltzeko; izan ere, lurraldearen gaineko eskumen funtzioak zentralizatu egin dira, eta Amazoniako «resguardo» indigenen eskumenak edukiz hustu dira. Gabezia eta zailtasun horiei aurre egiteko, Agintari Tradizional Indigenen Elkarteak (AATI) sortu dira, Amazoniako enpresen presentziaren aurkako erresistentzia eta mobilizazio indigenen aktibazioan eta katalizazioan zeregin garrantzitsua izan dutenak. Figura horri esker, komunitateek elkarriketak izan dituzte departamenduetako gobernuekin eta ingurumen agintariekin², hala nola Administrazioen arteko Koordinaziorako Mahai Iraunkorrek. Mahai horiek elkarriketarako eta hitzarmenerako gune izan dira, eta, horri esker, akordio garrantzitsuak lortu dira osasunaren, hezkuntzaren eta lurralde antolamenduaren arloan indigenen autonomiaren alde. Lurralde Entitate Indigenen falta, nolabait, Administrazioen arteko Koordinaziorako Mahai Iraunkorren figurak ordeztu du, lurraldeko erresistentzia bideak gidatzeko bektore gisa.

Gabezia horiek betetzeko, 2018ko 632 Dekretua garatu zen. Dekretu horrek prozedura berezi bat ezarri zuen udal ez diren Amazoniako eremuetan indigenen lurraldeek funtziona zezaten. Asmoa zen indigenen gobernu egiturak aitortzea eta haien lurraldeak lurralde entitate moduan zedarritzea. Dekretuak autodeterminazioa erabat gauzatzeko eta indigenen erakunde politiko, sozial eta kulturalak babesteko euskarria ezartzen du, baita gobernu propioa indartzeko eta Estatuko gainerako entitateekin harreman orekatuen eraikuntzan aurrera egiteko ere. Hala eta guztiz ere, Amazoniako herri indigenek gobernu eta autonomia politiko eta administratiboa izateko eskubidea erabat gauzatzeko bidea oztopoz beteta dago, eskubide hori konstituzioan aitortuta daukaten arren.

Horrekin guztiarekin batera, beharrezkoa da aipatzea aurretiazko kontsultak, aurretiazko baimen aske eta informatuarekin batera,

² Amazoniako Hegoaldeko Garapen Jasangarrirako Eskualdeko Korporazio Autonomoaz (Corpoamazonia), Amazoniako Ipar-ekialdeko Garapen Jasangarrirako Korporazioaz (CDA) eta Parke Nazional Naturalen Sistemako Administrazio Unitate Bereziko Amazoniako Lurralde Zuzendaritzaz (UAESPNN) ari gara. Mahaietan Ikerketa Zientifikoan Amazoniako Institutua (SINCHI) ere badago.

arauen garapen eta inplementazio politiko garrantzitsuak izan dituela Kolonbian, arreta berezia jarrita Mocoako lurraldean. Konstituzioaren 330. artikulua aitortzen du komunitate eta herri indigenek eskubidea dutela lur azpiko baliabideak miatzeko eta ustiatzeko baimenarekin lotutako erabakiak hartzen parte hartzeko, haien osotasun kultural, sozial eta ekonomikoa urratu ez dadin. Konstituzio Auzitegiak argi eta garbi adierazi du hori, aurretiazko kontsulta oinarritzko eskubide bat dela ezartzean, komunitate etnikoen integritate kulturala eta talde iraupena bermatzen dituen. (SU-039 epaia, 1997). Gorteak printzipio batzuk ezarri ditu edozein kontsulta antolatu eta gidatzeko, benetan eta babespean egin dadin bermatzeko. Edozein gobernu behartuta dago, beraz, aurretiazko kontsulta prozesuak egitera, eta enpresek ez dute eskumen hori izango, hau da, ezin izango dute inoiz ere kontsulta gidatu edo antolatu. Hortik ondorioztatzen da enpresek komunitateekin egiten dituzten bilerek ezingo dutela legezko kontsulta prozesuen baliua izan. Mocoan ere egin da horretarako ahalegina. Gorteak zehaztu duenez, edozein kontsulta prozesuak aurretiazko kontsulta bat eskatzen du, baldintzak, prozedura eta aplikazioaren lurralde eremua zehazteko, kontsultatutako komunitateen berezitasun kulturalak eta kosmobisionalak kontuan hartuta (Konstituzio Auzitegia, SU-383, 2003; C-175, 2009 epaia). Gorteak zehazten du komunitateak ordezkatzeko dituzten agintariak direla kontsulta prozesuan erabakiak hartzeko eta hitzartzeko legimititatea dutenak, eta haien legimitatea aurrekontsulta prozesuetan adostu daitekeela —Ekintza Komunaleko Batzordeak edo indigenen liderrak, Mokoan—, baina ez taldeko edo komunitateko edozein kidek (Konstituzio Auzitegia, T-737,2005 epaia). Gainera, informazio zehatza, osoa eta egiazkoa eman behar zaie komunitateei enpresek lurraldean egiten dituzten miaketan ondorioei eta inpaktuei buruz (Konstituzio Auzitegia, C-030 epaia, 2008). Kontsultak teleologia argia izan behar duela ezartzen du: kontsultatutako komunitateen oinarritzko eskubideak babestea (Auzitegi Konstituzionala, Epaia, C - 175, 2009). Azkenik, Gorteak ezartzen duenez, aurretiazko aurre dauden alderdien artean akordiorik lortu ezin den kasuetan, gobernuko agintariak hartu beharko dute azken erabakia, arrazoitua, objektiboa eta eskualdeko interes eta gatazken neurrikoa. Gainera, erabakiak eragina izan badezake komunitate eta herri indigenen ekoizpenean, ugalketan eta garapenean, komunitate eta herri horien aurretiazko baimen aske eta informatua lortu beharko da (Konstituzio Auzitegia, T/769,2009; T/129; T/601, 2011 eta T/693, 2011 epaiak).

Nahiz eta Konstituzioak lurralde eskubideen ikuspegi hain argia izan, kontsultaren gatazka Mocoan ere gertatu da Libero Cobreren eskutik, nahiz eta meatze jarduera oraingoz hasiberria baino ez den. 2022ko irailaren 26an, Barne Arazoetarako Ministerioko Aurretiatzko Kontsultarako Agintaritza Nazionalaren Zuzendaritzak, Ebazpen baten bidez (ST- 1450, 2022ko irailaren 26koa), Mocoako proiektu, obra edo jardueretarako komunitate etnikoei aurretiatzko kontsulta egitea bidezkoa dela adierazi du.

Ebazpenak Libero Cobre enpresak aktibatutako erreklamazio bati erantzun dio; hain zuzen ere, zalantzan jartzen zuen «1-Proyecto Mocoa» eremuan «Azterlan teknikoak, ingurumenekoak eta sozialak» proiektua egiteko aurretiatzko kontsulta behar ote zen. Erreklamazio horri dagokionez, ebazpenak irmotasunez ezartzen du bidezkoa eta egokia dela aurretiatzko komunitate indigenari kontsulta egitea, Inga herriaren Condaguaren «resguardo» indigenari dagokionez, Barne Arazoetarako Ministerioaren eta Libero Kobre enpresaren aurka. Horrekin betetzen dira Mocoako Barruti Judizialeko Auzitegi Nagusiak bigarren auzialdian emandako xedapen judizialak (Erabaki Sala Bakarra gatazken konponbide alternatiboko 860013104002-2022-00042-01 tutoretza prozesuan). Era berean, Ebazpenak 48 orduko epea ezartzen dio *Aurretiatzko Kontsultarako Agintaritza Nazionaleko Zuzendaritzari* Libero Cobrek egindako meatze miaketek Inga herriaren Condagua «resguardo» indigenan izandako edo izan dezaketen eragina egiaztatzeko beharrezko izapideak hasteko. Azkenik, Libero Cobre enpresari agintzen zaio Inga herriaren Condagua «resguardo» indigenari zuzenean eragiten bazaio meatze miaketen ondorioz, enpresak modu aktiboan eta elkarlanean parte hartu beharko duela kontsulta prozesua egiten, edo eragin hori arintzeko edo prebenitzeko beharrezko neurri guztiak hartzen.

Hori guztia funtsezkoa da Mocoa proiektuko lurralde gatazka ulertzeko eta lurralde erresistentziek duten garrantzia ulertzeko. Horrek guztiak erresistentzia estrategiak norabide zehatzetan biderarazi ditu: lurralde eskubideak eta indigenen beste eskubide kolektibo batzuk indartzera; izan ere, Konstituzioan nahiz Nazioarteko Zuzenbide Indigenan aitortuak badira ere, eskubide horiek guztiak alde batera utzi dira Mocoa proiektuaren miaketaren hastapenetan, eta gatazka handiagoa ekarriko dute datozen urteetan, meategien ustiapenak gorengo maila iristen duenean. Aurreko azalpena funtsezkoa da hobeto ulertzeko eskualde honetako lurralde gatazka espezifikoak; konstituzioaren eta

nazioartearen babesarekin aitortutako lurralde eskubide indigenak ez gauzatzea; Estatuak indigenen eskubideak errespetatuko dituen landa-jabetza antolatzekeo prozesu harmoniko batean aurrera egiteko erakutsitako borondate politiko eskasa; Mocoako lurraldean bizi diren komunitateen artean dagoen haustura sakona, prozesuak eta erresistentziak ulertzeko bide desberdinak proposatzen baitituzte, eta Estatuak autonomiak eta indigenen lurralde aitopenen urratzen dituen erregulazioari eutsi dakion onartzea. Horrek guztiak erraztu egiten du Libero Cobre bezalako meatze enpresak ezartzea Mocoan eta lurralde indigenetan. Kontsultak dagoeneko sortu dituen gatazkak ikusita, gerta liteke Amazoniako eskualde horretan izandako lurraldegabetzearen aurkako indigenen protesta eta erresistentzia kriminalizatzea.

2.1. *Tutoretza akzioa Justizia Gorte Gorenean (STC-4360, 2018)*

Orain arte adierazi dugun bezala, komunitate eta herriak indigenen lurralde eskubideen legezko onarpena (estaturakoa eta nazioartekoa) ari dira erabiltzen erresistentzia estrategia moduan. Horregatik, garrantzitsua da auzi estrategikoan arreta jartzea, erresistentziak ulertzeko, baita Mocoan ere.

Esparru horretan kokatu behar da haur talde batek jarritako tutoretza akzioa; izan ere, Kolonbiako Amazonia eskubide demokratikoen subjektu gisa onartu zen azkenean, eta, horren ondorioz, Estatuak eta beste lurralde entitate batzuek babestu, kontserbatu, mantendu eta biziberritu beharra dute. Beraz, Amazoniako berotze globala arintzera bideratutako Kolonbiako lehen ingurumen auziaren aurrean gaude. Legearen aldetik, ondorio garrantzitsuenak hauek izan dira: i) Amazonia eskubidedun subjektu deklaratzeko; ii) Amazoniako baso soiltzeari aurre egiteko ekintza plan bat sortzea; iii) Kolonbiako Amazoniaren bizitzaren aldeko belaunaldien arteko plan bat sortzea.

Epaiak ekarpen garrantzitsuak egiten ditu Amazonian etorkizuneko erresistentziak eta borrokak antolatzekeo eta bideratzeko. Ekarpen horietako batzuek jasangarritasunaren ikuspegi integrala hartzearekin dute zerikusia, baita Amazoniako jasangarritasuna bermatu ahal izateko lurralde eskubideen eta eskubide kolektiboen ikuspegia hartzearekin ere. Epaiak klima aldaketak Amazonian bizi diren komunitate eta taldeen bizitza duinerako eskubideari gogor eragiten diola ezartzen du (bereziki,

bizi direnen osasun baldintzei, elikadurari eta ur baliabideei dagokienez). Onartzen du deforestazio prozesu handi bat dagoela, hainbat faktoreren arteko konbinazioak eragindakoa: lur erkideak legez kanpo eskuratzea; legez kanpoko monolaborantzak; legez kanpoko meategiak eta erauzketa prozesuak; Amazoniara sartzea ahalbidetzeko azpiegitura publikoak sortzea; industriako laboreak; edo legez kanpo zura ateratzea, besteak beste. Egoera horri erantzuteko, deforestazioari aurre egiteko neurri garrantzitsuak hartzea proposatu du, besteak beste, legez kanpoko laboreen presentzia eta legez kanpoko meatzaritzaren presentzia mugatzen dutenak eta meatze titulu berriak ematea murrizten dutenak, horrek guztiak Amazoniako ekosisteman duen inpaktu handiagatik. Aitortzen du, gainera, etorkizuneko belaunaldien eskubideen garrantzia, aldaketak nolako arriskuak sortzen dituen onartuta. Eta hori guztia funtsezkoa da etorkizunean belaunaldien arteko jasangarritasun itunei eusteko.

Tutoretza akzioa prestatzeko prozesuan, komunitate indigenek, nekazariak eta giza eskubideen aldeko erakundeek egin dute bat, bai eta beste gizarte erakunde batzuek ere. Proposamena zen estrategia juridikoak —epaiaren bidez burutua— erantzutea Estatuak Amazonia bere osotasunean babesteko betebeharra bete ez izanari. Beraz, tutoretza akzioa auzi estrategiko gisa planteatzen da, klima inpaktuak eta enpresen ekintzak, besteak beste meatzaritzak, Amazonian eta haren komunitateetan eragiten ari diren gatazkak konpontzeko. Epaiaren arabera, ikuspuntu ekozentrikoa hartu behar da, hazkunde ekonomikoa, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa modu orekatuan uztartuko dituenak. Erresistentzia estrategiak, lehen esan dugun bezala, Konstituzioan aitortutako indigenen lurralde eskubideek duten garrantziari arreta jarri beharra azpimarratzen du, bai eta eskubide horien zuzeneko urraketari ere, enpresen (meatze enpresen) eta beste eragile batzuen ekintzen ondorioz.

2.2. 2018ko STC-4360 epaiaren mugak

Tutoretza akzio hori garrantzitsua bada ere, haren zenbait muga eta gabezia ere jarri behar dira agerian³. Izan ere, epaiak ez ditu aintzat har-

³ Epaiaren jarraipena egin zuen Dejustiziaren txostenaren arabera, 2019an Caquetá eta Putumayo departamenduetako udal batek ere ez zuen betetzen epaiaren hirugarren agindua. Caquetá departamenduko 5 udalerrik bakarrik (Milan, Solano, Solita eta Carta-

tzen indigenek eta komunitateek Amazoniako lurraldea ulertzeko eta babesteko moduen oinarriak eta zentzua. Hala ere, muga horiek garrantzitsuak dira, erresistentziak pentsatzen eta oinarritzen jarraitzeko ihesbideak eta ekintza politikorako proposamenak ematen baitizkigute.

Muga horien artean honako hauek daude:

- Amazoniako lurralde plangintzako eta ingurumen babeseko tresnen arteko lotura falta. Epaiak eztabaidaren funtsezko elementu bat kanpoan uzten du: lurralde antolamenduaren arloan eskumena duten funtsezko erakundeen erantzukizuna. Arazo horren zati bat lehenago aipatu dugu ETlei buruz hitz egin dugunean.
- Aitorpen juridikoen izaera ez-eraginkorra eta erretorikoa, hala nola Amazonia eskubideen subjektu deklaratzeko, ondasun horien ordezkari edo administratzaile espezifikorik ezarri gabe, alegia, komunitate edo herri indigenak ordezkari edo administratzaile izendatu gabe. Edo ekozentrismoa ezartzea epaiaren zentzuaren oinarritzat, premisak orientatzeko, beste aplikazio praktikorik gabe, hau da, ezarpenean zuzenean inplikatu beharreko eragile eta subjektuak esleitu gabe.
- Lurraldearen eta babes mekanismoen ulerkera estatu-zentralista alde batera uzteko beharra, eta komunitateen parte-hartzea modu serio eta eraginkorrean txertatu beharra lurraldea babesteko planen diseinuan.
- Ingurumenaren kalteberatasuna kontuan hartzeko beharra, haren konplexutasun osoa eta dimentsio guztiak kontuan izanik. Beraz, lurraldearen eta ingurumen arduraren kontsiderazio murriztailea (epaiak batzuetan egiten duena) saihestu beharra. Funtsezkoa da Amazonia sistema ekologiko konplexutat hartzea, erresistentziak eta alternatibak pentsatu ahal izateko.
- Kaltetutako komunitateek Amazoniaren kontserbazioan eta babesean egindako lana eta balioa aitortzea, inpaktuek eta lurralde-gabetzeak kaltetutako biztanleriaren berezitasun eta proble-

gena del Chairá) aurkeztu zituzten Lurralde Antolamendurako Planaren (POT) eguneratzeak, baina klima aldatetara egokitzeko inolako neurririk gabe, ez prebentziozkorik, ez nahitaezkorik, ez zuzentzailerik, ez pedagogikorik, eta Caquetáko 2 udalerrik (Doncello eta Valparaiso) ekintza plan bat aurkeztu zuten, POTaren eguneratzean sartuko zena. Horrela, Mocoa ere epaiaren ondorio materialak ezartzeko beharrezko neurrien aplikaziotik kanpo geratu da (Garavito, 2019).

matika espezifikoa arreta jarri. Erreferentzia zehatzak egin behar zaizkie lurraldean bizi eta ekoizten dutenei, eta ez aipamen generikoak eta abstraktuak, epaiak egiten dituen bezala.

- *Garapena-hazkunde ekonomikoa-erazketa eredu* lotura hautsi beharra (lotura horretan onarrituta bultzatu eta erraztu baitu orain arte Estatuak Amazonian megaproiektuak finkatu daitezkeen), lurraldearen bestelako ikuskera batera igartzeko, ekoizpenarekin eta erazketa-rekin lotuta ez dagoen ikuskera batera, hain zuzen ere. Lurraldearen ikuskera desarrollistak lurraldearen balioa errotik ezeztzea dakar. Amazoniaren kontserbazioa ulertzeko eta interpretatzeko bestelako ikuspegiak behar da, merkataritza-kontsiderazioetatik haratago. Hori funtsezko elementua da erresistentzietarako.

2.3. *Indigenen bizi planek erresistentzia estrategia gisa duten garrantzia*

Lurralde erresistentziako estrategiak bideratzeko premiaren barruan —Kolonbiako konstituzio araudian Amazoniako indigenei aitortzen zaizkien lurralde eskubideak ardatz hartuta—, oso garrantzitsua da indigenen bizi planen zentraltasuna ematea, herri indigenek lurraldearen babeserako egiten duten proposamen holistikoa ulertzeko. Bizi plan horiek eskaintzen duten ulerkerak ikusita, erraz ondorioztatu daiteke nolako egiturazko mugak dituen aztertu dugun Kolonbiako Gorte Gorenaren epaiak. Bizi planak funtsezkoak dira indigenen lurralde erresistentzia aktibatzen eta bideratzen duen oinarri politikoa ulertzeko.

Indigenen bizi planek, batez ere, jasangarritasuna ulertzeko moduari buruzko kontsiderazio integrala proposatzen digute. Garapen eredu bat baino gehiago, garapenaz bestelako alternatiba eta trantsizioak proposatzen dituzte. Ildo horretan, Amazoniako kolapso ekologikoaren arrazoi sakonak azterketa konplexu eta estrukturala proposatzen dute, komunitateek eta herriek jasaten duten lurraldegabetzea nagusi den ekoizpen ereduarekin lotuz.

Bizi planak guztiz garrantzitsuak dira indigenen erresistentzia pentsatzeko; izan ere, indigenen autodeterminazioa egituratzeko eta eraitzeko gunea dira, lurraldearen ikuspegitik. Autodeterminazioa funtsezko elementua da indigenen erresistentzia mota oro ulertzeko —gure kasuan, meatzaritzaren kontra—; izan ere, boterearen lurral-

de-deskontzentrazioa eskatzen du, indigenek bere kabuz antolatzeko moduak izan ditzaten, herri eta nazio gisa. Autodeterminazioak nazio aniztasuna ere esan nahi du; hau da, herriak eta nazioak subiranotasuna duten subjektu politiko gisa gaitzea, orain arte Estatuan ezagutu ez dena. Azkenik, *ekonomia plurala* aitortzea ere eskatzen du —pluralismo juridiko gisa tentsionatua—, eta horrek berekin dakar ekoizteko eta bizitza antolatzeko hainbat modu egotea Estatuan, bai eta modu horiek garatzeko eta ezartzeko arlo juridikoa ere modu pluralean ulertzea (Martínez de Bringas, 2018; García Linera, 2012).

Bizi planak komunitatearen epe luzerako ikuspegi politikoa dira, erresistentzia indigenak ulertzeko eta dinamizatzeko ardatza. Lurralde plangintzarako tresna gisa eskaintzen eta proposatzen dira, Estatuak proposatzen duen lurralde proposamen administratiboarekin alderatuta⁴; hori guztia autodiagnostikoko prozesu parte-hartzaile baten bidez egin eta eraikitzen da, Estatuaren instituzionalitatearekin etengabeko elkarrizketan. Bizi planak behin betiko egituratzeko, funtsezkoa da komunitatearen instituzionalizazio politikoa, eta horrek barne hartzen ditu gobernatzeko eta barne erabakiak hartzeko moduak. Bizi planak komunitate indigena baten autokudeaketa moduen, ekoizpen ereduen eta lurralde-jasangarritasunerako proposamenen erradiografia dira. Horregatik, indigenen erresistentzien errorea dira, edozein errebindikazioaren arrazoi politikoa bertan baitatza.

Bizi planek argi uzten dute zein den indigenen erresistentziaren proposamen politikoa, hiru faktore hauek azpimarratuz: i) Amazoniako komunitateen bizitza prozesu konplexua, non kontsiderazio ekologiko eta kulturalak sinkronikoak diren eta elkarri lotuta ikusi behar diren, trantsizio ekologikoak, garapen moduak eta jasangarritasun ereduak ulertu ahal izateko; ii) Amazonian dagoen gizarte antolamenduko pro-

⁴ Gai horren garrantziaz hitz egin dugu lehenago ere, Amazoniako ETlen arau garapen ezari buruzko arazoa aipatu dugunean; alegia, Estatuak legeriaren garapena atzertzeko asmoa duela. Haatik, beharrezkoa da indigenen autonomia garatzeko eta lurralde komunitarioen gaia sakontasunez inplementatzeko. Konstituzioaren ageriko betekizun hori —meatze ustiapenei muga jartzeko funtzionatuko lukeen lurralde-ulerkerako giltzarria— ez betetzeak indigenen erresistentzia mota guztiak pizten ditu halabeharrez. Bizi planek Estatuak proposatutako eredu desarrollisten alternatiba erresistente gisa funtzionatzen dute, eta Estatuak araugintzan duen ekintza eza ordeztzen dute, nahiz eta Konstituzioak eskatzen duen indigenen lurralde eskubideak eta haien berezitasun kosmobisionalak aintzat hartuko dituen Amazoniako lurralde bat ezarri behar dela.

zesua, herri indigenek harreman eko-sozialetan eskubideen subjektu gisa duten garrantzia, eta herri indigenek eta beste komunitate batzuek ekosistemen eta lurraldearen babesean duten funtzio garrantzitsua; iii) baliabide komunitarioek merkatuaz haraindiko balio kultural eta ekologiko gisa duten garrantzia.

Gogoeta horiek guztiek egituratzen dute Amazoniako lurraldeko indigenen eta komunitateen erresistentzia. Lurralde erresistentziaren politika lurralde aliantzen sare zehatz eta konprometitu bat finkatzean datza, hala nola erresistentzia komunitarioko *mingak*, bizi planen inguruan eratu eta artikulatzen direnak. Hurrengo orrialdeetan gai horietako batzuk jorratuko ditugu, Libero Cobre enpresak Mocoan duen meatze proiektua (kobrea eta molibdenoa erazteko aire zabaleko meatze bat ezartzea) eta haren presentziari emandako erresistentziazko erantzuna aztertuz. Enpresa horren lanak, aurreko kapituluan zehatz-mehatz ikusi ahal izan den bezala, duela urte batzuk hasi ziren, baina 2021aren amaieratik aurrera hasi dira miaketa lanak indar handiagoz egiten. Tesuinguru horretan gertatu dira enpresaren presentziari, miaketa lanari eta balizko meatze ustiapenari aurre egiteko erreakzioak. Kasu hau aztertzea interesgarria da hasierako fasean dagoelako eta dagoeneko erantzunak gertatzen hasi direlako.

3. **Libero Cobre enpresak Mocoan duen ekimenari emandako erantzun soziala**

Atal honen helburua da horrelako meatze proiektu bati ematen ari zaion erantzunaren alderdirik garrantzitsuenak eta arrazoiak identifikatzea eta, horren ondorioz, zer elementu ari diren enpresaren ekimena moteltzen edo geldiarazten zehaztea. Galdera horiei erantzuteko asmoz, 2022ko otsailean hainbat elkarrizketa sakon egin zitzaizkien funtsezko informatzaileei, eskualdeari buruzko informazioa eta ebidentziak, aurreko eta egungo baliabide naturalak erazteko ekimenak eta Libero Cobre enpresaren ezarpenaren esparruan gaur egun gertatzen ari diren erantzunak/erresistentziak biltzeko. Informatzaile horiek inplikaturako eragile nagusietako pertsonen profilekin bat datoz: Estatu/erakunde publikoak (EST), enpresak (ENP) eta gizarte zibila (GZ), komunitate indigenen zereginari arreta berezia eskainiz. Hurrengo taulan elkarrizketatutako pertsonen profilak jasotzen dira.

1. TAULA

Egindako elkarrizketak

Zk.	Eragile mota	Sexua	Data	Profila
1	ENP	G	2022/02/23	Libero Cobre enpresaren ordezkariak
2	GZ	G	2022/02/24	Ordezkarri politikoa, akademikoa eta lider soziala
3	EST	G	2022/02/23	Alkatetzaren ordezkaria
4	EST	E	2022/02/25	Gobernuko funtzionarioak
5	GZ	G/E	2022/02/09	Nazio mailako erakunde sozial bateko ordezkariak (giza eskubideen defentsa)
6	SC	E	2022/02/14	Emakumeen gizarte erakunde bateko kidea (ikerketa arlokoa)
7	GZ	E	2022/02/14	Tokiko gizarte erakunde bateko ordezkaria (giza eskubideak, lurraldea, landa-eremua)
8	GZ		2022/02/26	«Resguardo» bateko kidea eta irakaslea
9	GZ	E	2022/02/26	Emakume indigenen gizarte erakunde bateko kidea
10	GZ	E	2022/02/22	Tokiko abokatua eta giza eskubideen arloko aholkulari juridikoa
11	GZ	G	2022/02/22	Eskualdeko nekazaria, politikan eta gizarte erakundeetan parte hartzen duena
12	GZ	G	2022/02/22	Meataritzaren inpaktua duen lurralde bateko biztanlea
13	GZ	E	2022/02/22	Giza eskubideen eta lurraldearen defendatzailea, ordezkari politiko-instituzionalean esperientzia duena
14	GZ	G	2022/02/24	Tokiko gizarte eta kultura erakunde bateko kidea
15	GZ	E	2022/02/22	Tokiko hainbat gizarte erakundetako kidea
16	GZ	G	2022/02/25	Agintari indigena
17	GZ	E	2022/02/23	Meataritzaren inpaktua duen lurralde bateko biztanlea
18	ENP	E	2022/02/28	Putumayoko Merkataritza Ganberaren ordezkaria
19	GZ	G	2022/02/27	Erlijio erakunde baten ordezkaria (apaiz katolikoa)
20	GZ	G	2022/02/22	Amazoniako gaietan espezializatutako ikertzailea

Elkarrizketek, erdi egituratutako galderen gidoi baten laguntzaz, testuinguruari eta eskualdeari buruzko era askotako informazioa bil-tzen dute, eragile bakoitzaren paperari buruzkoa, meataritzako ekime-naren aurrean dituen jarrerei buruzkoa eta kapitulu honen helburuari erantzuteko garrantzitsuak diren beste informazio batzuei buruzkoa. Informazioaren irakurketa eta azterketa funtsezko lau elementu kon-tuan hartuta egituratu da: (i) honelako proiektuek lurraldean eta bertan bizi diren komunitateetan sortzen dituzten igurikimenak, (ii) eztabaida-gai diren gai nagusiak, (iii) harreman horietan izan diren diskurtsoen al-derdirik garrantzitsuenak, (iv) meatze proiektuen presentziaren aurrean gizarte zibila egituratzearekin eta antolatzearekin lotutako elemen-tuak⁵, eta, bereziki, herri indigenekin zerikusia duen guztia, aurreko atalean aipatu den bezala, lurraldearen babesean eta zaintzan haiek baitute zeregin nagusia.

2. TAULA

Analisi-matrizea

Funtsezko elementuak	Kontuan hartu beharrekoak
Igurikimenak	Herritarrek, erakundeek eta gizarte zibilak meatze proiektuen eragin positibo eta negatiboari buruz di-tuzten igurikimenak
Eztabaidak	Eztabaidagai nagusiak: tokiko biztanleen artean, tokiko biztanleriaren eta enpresen/proiektuen en-presa bultzatzaileen artean. Gatazkan dauden ele-mentuak
Diskurtsoak	Proiektuen eta haien eraginen alde eta kontra era-bilitako argudioak
Antolaketa	Gizarte zibilaren antolaketarekin zerikusia duten al-derdiak, eta, bereziki, erakunde eta/edo komuni-tate indigenen erantzuna eta eginkizuna, beren es-kubideen defentsari dagokionez.

⁵ Gizarte zibilaz ari garenean, haren aniztasuna eta konplexutasuna hartu behar di-tugu kontuan, izan ere, askotariko sektoreek eta pertsonak osatzen baitute: merkatar-i-zakoek, oinarrizko taldeetakoek edo bestelako lider sozialek.

3.1. *Mocoako meatze ekimenak*⁶

Putumayon bultzada eman zaio ekonomiari xx. mendean zehar, baliabide naturalen ustiapenean oinarrituta (kina, kautxua, petrolioia, etab.). Oparoaldien artean, petrolioarena da zonaldean indar gehien izan duen sektorea. Gaur egun, turismoa eta nekazaritzako industria dira lurraldearentzat eta bertako biztanleentzat garrantzia duten beste sektore batzuk. Departamenduan nolabaiteko presentzia duten enpresa gehienak enpresa txiki eta ertainak dira, enplegatuen tamainari dagokionez. Meatze ustiapenari dagokionez, miatzeko lehen emakidak 1976. urtekoak dira.

Eskualdeak Amazoniako lurraldearen zati bat hartzen du, aurreko atalean adierazi den bezala, eta lautadari hasiera ematen dion eremua da. Beraz, faunari, florari, biodibertsitateari eta bestelako baliabide naturalei dagokienez ahalmen handia duen lurraldea da. Petrolioaren erazketari buruz aurretik izandako esperientzia ez da oso positiboa izan; izan ere, gizarte zibilaren ikuspegitik behintzat, ekimen horiek ez zituzten ekarri bertako bizilagunek espero zituzten emaitzak, ez garapen sozialari dagokionez, ez azpiegituretako inbertsioei dagokienez. Aurrerago ikusiko dugunez, lehenagoko ekimenek ez dute onura nabarmenik utzi lurraldean, eta horrek ekarri du gaur egungo meatze proiektuen aurkako jarrera eta erantzuna.

Mocoako egungo ustiapen proiektuak 2006an Anglo Gold Ashanti enpresari emandako emakidetan du sorburua. Enpresa horrek Mocoa Venturesi laga zizkion eskubideak (2009), eta, azkenean, Libero Cobre izena hartu zuen, gaur egun lanean ari den enpresaren izena. Lehengo gatazka armatuko egoerak eta FARCEk lurraldean zuen presentzia handiak zaildu egin zuten 2016. urtea baino lehen miatzea eta ustiatzea. Kolonbiako Gobernuaren eta FARCEn arteko bake akordioak sinatu ondoren, urte horretan baliabide naturalak miatzeko eta ustiatzeko jarduerak areagotu ziren. 2020an jarduerak gelditu egin ziren Covid-19aren pandemiaren ondorioz, eta une larrienak gainditu ondoren, lanei ekin zieten berriro, pandemiaren osteko testuingurua aprobetxatuz. Egoera horrek berriro azaleratu ditu Mocoa proiektuaren aurkako erantzuna eta arbuioa.

⁶ Azpialat honetan (3.1.) eta hurrengoan (3.2.) jasotako eta garatutako informazioa landa-lanean egindako elkarriketen zati batean oinarritzen da (ikusi 2. taula).

Enpresako kideek elkarrizketan adierazi dutenez, proiektua miaketa fasean dago. Beraz, adierazi duten bezala, ez dakite nola eraikiko den meategia eta nolakoa izango den ustiapena. Enpresak miaketa faseaz hitz egiten du. Fase horretan, nolako eta zenbateko baliabideak dauden aztertzen ari direla, eta, beraz, oraindik goiz dela ustiapena nolakoa izan daitekeen eta zer ondorio izan ditzakeen aurreratzeko. Izan ere, Corpoamazoniako kontratista batek adierazi duen bezala, baliteke Libero Cobre miaketan aurrera egitea, eman zaion meatze titulua mugitzearren, azkenean meategia ezarriko duen edo ez jakin gabe. Kontratatik esaten zuen eremu horretan (1000 eta 1800 metro arteko garaiera) meategi bat eraikitzea oso zaila izango zela eta, ziu-rrenik, miaketa egiten duena ez dela izango meategia eraikitzen eta mea ustiatzen jarraituko duena. Hala ere, lurraldeko afektazioari dagokionez, komunitatearen zenbait sektorek arrisku handiko jardueratzat hartzen dute, batez ere bi arrazoiengatik: batetik, Putumayo Behereko biztanleek hidrokarbuoen ustiapenarekin izan duten esperientziagatik, eta, bestetik, herrialdeko beste eremu batzuetan izan duten esperientziagatik.

Komunitate indigenak dira beste eragile garrantzitsu bat. Inguru horretan hainbat herri indigena daude, udalerriak 27 komunitate indigena ditu eta nolabaiteko garrantzia duen hirigune bat. Horietako batzuk ustiapen proiektuen eraginpean egon daitezke, hala nola Yunguillo eta Condagua «resguardo»ak. Tokiaren eta tokiko bizilagunen garapenaren ikuspegiak eragin handia izan du ingurumenaren zaintzan eta biodibertsitatearen babesean. Hain zuzen ere, ingurumen aberastasuna hala baloratzea da meatzea ustiatzeko emakidak sortzen duen gaitzespenaren eta gatazkaren bihotzean dagoena. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, herri indigenek eta haien erakundeek lurraldea babesteko izan dezaketen rolak garrantzi handia du, eta alderdi hori ere azaleratzen da egindako elkarrizketetatik; izan ere, uste dute erresistentzia-gune horietatik lagundu daitekeela ondoen Libero Cobreraren eta beste batzuen erauzketa proiektuak motel-tzen edo baztertzen⁷.

Erresistentzia-gune nagusietako bat eremu nazionalaren eta toki-koaren edo azpinazionalaren arteko interes kontrajarriek sortzen du-

⁷ Proiektuak sortu duen gatazka zehatz-mehatz ikusteko, ikusi lan honen 1. Zatia.

ten tirabirak/tentsioak eragindakoa da. Eremu nazionaleko erakundeen interesek, batez ere Kolonbiako Gobernuarenek, talka egiten dute tokiko erakundeen interesekin, batez ere Alkatetzarekin. Lehenengoek meatze ustiapenak maila globalean dituen onuren ikuspegia dute, eta bigarrenek, berriz, esku-hartzeak udalerrian eragiten duen inpaktu negatiboari buruzko kezka dute, batetik, ingurumenari dago-kionez, eta, bestetik, epe luzean eskualdean inpaktu ekonomikoa txikia izan litekeelakoan. Toki mailan egoera horri emandako erantzuna lehen aipatutako O20 Udal Akordioa da. Akordio horren bidez, Alkatetzak meatze jarduerak (tamaina handikoak eta ertainekoak) debekatzea erabaki du, eremuaren arrisku geologikoa dela eta⁸. Akordio hori 2017an Mocoan izandako uholdeen ondoren onartu zen, baita eskualdeko baliabide naturalak erauzteko aurretik izandako esperientziaren ondorioz ere.

Hurrengo lerroetan, gizarte zibila ematen ari den erantzuna aztertuko dugu, batez ere mea erauzketari emandako erantzuna eta gaitzespena. Hala ere, adierazi behar da, gizarte zibileko eragileen artean, merkataritza enpresen sektorea zatituta dagoela horrelako proiektu batek ekar ditzakeen garapen ekonomikoko aukeren aurrean, bai eta ezarri beharreko garapen motaren aurrean ere. Alde bat alde dago eta bestea kontra, halako moldez non desadostasun horiek zaildu egin baitute merkataritza ganberak jarrera argia erakustea.

Azken batean, meatze enpresen presentziari buruz identifikatu ahal izan diren planteamendu orokorrak antzeko egoeran dauden beste leku batzuetan aurki daitezkeenak dira: i) garatzeko aukerak, eta ii) ekosistemarentzako balizko kalteak. Hurrengo orrialdeetan, goian adierazitako lau elementuetan oinarritutako aurkikuntza nagusiak jaso ditugu (2. taula, analisi-matrizea). Elementu horietan, Mocoa proiektuaren esparruan inplikaturako eragileen jarrerak identifikatzen dira.

⁸ Mocoako Udal Kontzejuaren 2018ko abenduaren 6ko O20 zenbakiko Erabakia, zeinaren bidez erabakitzen baita «Mocoako udalerriko jurisdikzioan metalen meatze jarduerak eta gainerako mineralen meatze handi eta ertainak debekatzea... udalerriko ondare ekologikoa eta kulturala bermatzeko». Lehengaien kudeaketa dela-eta erakunde nazionalen eta azpinazionalen artean dagoen tirabiraren beste adibide bat da.

3.2. *Mocoa proiektuko erauzketa ekimenen aurkako dinamika eta erantzun sozialak*

[A] IGURIKIMENAK

Eragile bakoitzak bere igurikimenen araberako jarrera eta jokaera hartzen du Libero Cobre enpresaren meatze proiektuaren aurrean. Era-kundeak, gizarte zibil antolatua eta herritarrak oro har, meatze proiektuen eraginaren aurrean, gorago adierazitako bi ildoen inguruan egituratzen dira. Jarrera batzuek igurikimen positiboak dituzte, eta uste dute sortuko diren inbertsioak eta enplegua positiboak izango direla gehienbat. Besteek, berriz, uste dute esku-hartze horiek aldi baterakoak izango direla, eta, beraz, haien eragin positiboa ez dela iraunkorra izango; aitzitik, ondorio negatiboak izango dituztela ingurumenean, erauzketa motagatik. Gainera, argudiatzen dutenez, eragin negatiboa izango dute ehun sozio-ekonomikoan, ustiategiaren aldi baterako izaeragatik.

Esku-hartze mota horien inpaktuari buruz nabarmentzen diren alderdietako batzuk honako hauek dira: lan profil oso bereziak sortzea (aldi baterakoak, kualifikazio txikikoak, mendekotasuna, etab.); hiri-ingurunearen garapena sortzea eta, ondorioz, landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko desoreka gertatzea eta horrek ingurumen inpaktuak ekartzea; erauzketa metodo kaltegarriak sortzea eta, beste toki batzuetan gertatu den bezala, tokiko biztanleria pobretzea, tokia militarizatzea, eta onura nazionala lehenestea tokikoaren gainetik. Horren kontrara, tokiko biztanleek eta gizarte zibileko erresistentziek nahiko lukete komunitateek bizitza ona izatea eta enpresek beren erantzukizuna modu justuan beren gain hartzea udalerrira konpentsatuz.

Meatze proiektuarekiko kezka hori errepikatzen da gehien egin-dako elkarrizketetan. Elkarrizketen edukian pisu handikoa da alde onaren eta txarraren arteko tentsioa; hots, batetik, garapenerako aukerak eta eragin positiboa eta, bestetik, ingurumenean eta egitura ekonomikoan izango lukeen inpaktua. Kezka hori zonaldeko aurretiko esperientzietan oinarritzen da, baita herrialdeko beste leku batzuetan antzeko kasu eta proiektuei buruz dagoen informazioan ere. Gainera, 2017ko uholdeak tokiko biztanleengan izan zuen eraginak, batez ere Estatuaren erantzun desegokiagatik, konfiantza gutxiko eragin psikologiko kolektiboa du Mocoako biztanleengan.

[B] EZTABAIDAK ETA TENTSIO ARAZOAK

Eztabaidagai nagusiak eta inplikaturako jarrera eta eragileen artean tentsioa sortzen dutenak argi eta garbi proiektuaren alde kokatzen diren (enpresa eta gobernu nazionala) eta argi eta garbi kontra jartzen diren (lider sozial eta tokiko ordezkari ugari) artean sortzen dira. Beste eragile batzuk (tokiko gizarte zibilekoak eta bertako biztanleak) tartean daude. Aurrerago ikusiko dugun bezala, batzuek uste dute proiektuak aurrera egingo duela, gaitzetsia bada ere eta erresistentziak sortzen badira ere, eta, beraz, uste dute hobe dela formula egokiak bilatzea ezinbestean gertatuko den esku-hartzeari etekina ateratzeko. Aurreko kapituluan jaso den bezala, egoera horrek tokiko biztanleen arteko eztabaida, zatiketa eta gatazka sortu eta sakontzen du.

Harreman gatazkatsu horiei buruzko elkarriketetatik sortzen den auzietako bat da meatze baliabideak miatzeko (eta ustiatzeko) legitimitatea. Labor-labor adierazi dugunez, nazio mailan eta toki mailan dauden tentsio nagusiak (erakundeen arteko prozesuaren judizializazioa) horren guztiaren adibide garbia dira, konpondu gabea. Tokiko ikuspegitik, pertzepzio orokorra da enpresak eta Gobernu nazionalak ez dutela lurraldeko zorupea ustiatzeko zilegitasunik. Zalantzarik gabe, askoz ere gutxiago, argudiatzen den bezala, tokiko agintariak eta biztanleak kontuan hartzen ez badira. Hala ere, eta hori ere indar handiz azalertzeko da elkarriketetan, erakunde horiek (Gobernua, enpresak) miaketa lanak egiteko eta aurrera jarraitzeko duten indarra nabarmentzen da, beste edozein irizpideren gainetik beren interesa ezarriz.

Gauzak horrela, lurraldeko baldintza sozio-ekonomikoek erraztu egiten dute enpresek herritarren zaugarritasun handiko baldintzak esplotatzea eta, horrela, haien helburuak lortzea. Pobrezia maila, zerbitzu publikoen gabezia eta Estatuaren inbertsio urria dira baldintzatzaile gisa nabarmentzen diren elementuetako batzuk, eta haietaz baliatzen dira enpresak lurraldean sartzeko, dagoen kalteberatasunean sakontzeko eta enpresaren zerbitzuak eskaintzeko, bizi baldintzak garatzeko eta hobetzeko alternatiba gisa, eta pertsona asko limurtzen dituzte. Era berean, azpimarratzekoa da enpresaren eta tokikoaren arteko botere desoreka horrek tokiko biztanleen artean ere liskarra sortzen lagundu duela. Tentsio horiek zatiketak eragin dituzte herritarren artean, espazioak eta dena dena zaintzea aldarrikatzen duten pertsonen eta, besterik gabe, enplegua edo onura indibiduala bilatzen duten pertsonen artean.

Horren ondorioz, lurraldeko tentsio puntu nagusiak hauek direla esan dezakegu:

- Libero Kobrek lider sozialak neutralizatzeko, kooptatzeko edo usteltzeko egiten dituen praktikek tentsio handiagoak eragin dituzte proiektuaren eraginpeko eremuetan. Baldintza ekonomikoek eta bizi baldintzek auzo gatazkak eragin dituzte, eta, horietan, pertsona batzuek beren banakako onurei lehentasuna ematea erabaki dute, taldekoen gainetik. Ekintza Komunaleko Batzordeetako (JAC) kideak izan dira praktika horien helburuetako bat.
- 2017ko uholdearen bizipena oso presente dago. Munta handiko edozein obra (Farallones izenekoak, adibidez) tentsioa sortzen ari da, bere garaian Estatuaren esku-hartze desegokiak utzi zuen mesfidantzagatik, eta etorkizunean antzeko hondamendiak gertatzeko arriskuak murriztea helburu duten egungo esku-hartzeetan eragina du.
- Enpresak tokiko liderrekin (adib. JAC) aurrera daramatzan ekintzak ondorioak uzten ari dira: tokiko eragile politikoen arteko harremana eta elkarrekintza oztopatu, tokiko mailan erakunde barruko gatazkak sortu eta, ondorioz, besteak beste, lurraldearen zaintzaren eta babesaren inguruko oinarritzko adostasunak zaildu eta, era berean, aurkako jarrera alderdikoiak areagotu.
- Indarkeria eta gatazka armatuaren ondoriozko tentsioak agertu dira. Meatze proiektuarekiko erresistentziei aurre egiteko, eragile armatuak erabili omen dira, legez kanpoko laboreak daukela argudiatuz.

Azkenik, eztabaidetan eta gatazkan sakontzen laguntzen duen elementu gehigarri bat nabarmendu nahi genuke: informazioa, askotariko adierazpenetan. Horrelako proiektuek lurraldean izan ditzaketen benetako eraginei buruzko informaziorik eza nabarmentzen da. Halaber, azpimarratzen da proiektuei buruzko informazioa oso hizkera teknikoan zabaltzen dela herritarren artean, eta horrek proiektuaren benetako inpaktua ulertzea zailtzen duela. Ildo horretan, zenbait ahotsek azpimarratzen dute enpresak desinformazio estrategiak nahita erabiltzen dituela, eta estrategia horiek, besteak beste, pertsonak posizio kontrajarrietan kokarazten dituztela. Gai horiek zerikusi zuzena dute hurrengo funtsezko elementuarekin, hots, eragileen eta eragindako biztanleen narratibekin.

[c] DISKURTSOAK

Informazioa Mocoako meatze proiektuen alde edo kontra erabiltzen ari diren argudioen eta proiektuek lurraldean duten eragin positibo edo negatiboaren parte da.

Lehenik eta behin, enpresari dagokionez, enpresak tokiko biztanleekin harremanak izateko eta harreman hori baliatzeko programa bat du. Keinu bakoitza, txikiena izanda ere, lurraldean egiten duen lanaren irudi positiboa emateko baliatzen da. Horrela, gizartearekin, jendearekin (oro har, eta gazteekin bereziki) eta ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin konprometituta dagoen enpresaren diskurtsoa indartu nahi dute. Hori hainbat espaziotan proiektatutako eslogan hauetan zehazten da:

- «*Mocoa gara, bertakoak gara*». Eslogan horren arabera, tokiko enpresa nazional bat dela erakutsi nahi dute (adibidez, Libero Copper izenetik Libero Cobre izenera aldatuta), kontratista gehienak inguruko pertsonak direla eta tokiko garapena bilatzen dutela.
- «*Meatzaritza garbia*». Trantsizio energetikoari eta hidrokarburoen ordezkapenari buruzko diskurtsoa ere erabiltzen du enpresak.
- «*Miatu dezagun elkarrekin*». Eslogan hori gida didaktiko bati lotuta dago, eta gida didaktiko hori gailu elektronikoen bidez zabaltzen dute. Enpresa gailuen bidez ari da pertsona askorengana hurbiltzen, bere informazioa kontsumi dezaten.

Enpresaren diskurtsoei eta posizionamenduei kontrajarrita, gizarte zibilak bestelako jarrerak eta arrazoibideak aipatzen ditu.

Gizarte eragileek diote, jaso dituzten informazioen arabera, badaikitela meatzaritzako enpresek antzeko prozedurak erabiltzen dituztela iristen diren lurralde guztietan, eta antzeko mezuak baliatzen dituztela. Horrela, adibidez, salatzen dute enpresa horiek negozio proposamenak eskainiz sartzan direla lurraldeetan, esanez haien lurretan sartu behar dutela klima aldaketaren kontrako ikerketa zientifikoak egiteko, enplegua eskaintzeko edo meatzaritzarekin lotutako azterlanak egiteko, etab. Horrela engainatzen dituzte erauzketa egin nahi duten tokietako biztanleak. Gizarte zibilak nabarmentzen du praktika profesional horietako askok antz handia dutela meatzaritza energetikoaren sektorean

eta hidrokarburoen sektorean egiten direnekin. Praktika eta dinamika horiek guztiek enpresen lanarekiko eta asmoekiko mesfidantzan eragiten dute eta haien presentzia hutsak susmo txarra sortzen du.

Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da Putumayon aspalditik daudela lurraldea defendatzeko eta babesteko antolaketa eta erantzun bideak. Erresistentziako eragile nagusietako bat Batzorde Zibikoak dira eta Libero Cobrereren Mocoako proiektuan bat bereziki aktibatu da: Uraren eta Lurraldearen Defentsaren aldeko Batzorde Zibikoa. Herritarrek lurraldearen garrantziaz eta Mocoako proiektuak izan dezakeen inpaktu negatiboaz sentsibilizatzeko beharra planteatzen du. Batzorde hau aktibatuz lortu nahi den asmo nagusia da tokiko biztanleek beren lanerako eta baliabideetarako garrantzitsutzat jotzen dutena (basoak, iturri hidrikoak, fauna eta abar) defendatu ahal izatea, meatze proiektutik erator daitezkeen oparien gainetik.

[D] ANTOLAKETA

Gizarte zibilak emandako erantzunari heldu baino lehen, toki erakundeek erantzuna aipatu behar da, labur bada ere. 020 Udal Akordioari buruzko aipamena da meatze proiektuaren aurkako jarrerari buruzko erantzun garrantzitsuenetako bat. Akordio horrek mea ustiatzeko proiektuaren moteltzea eragin zuen eta, horrez gain, maila nazionalaren eta azpi-nazionalaren arteko eskumen eztabaidan sakondu zuen. Gai hori ebazpen judizialaren zain dago.

Erakundeetatik emandako erantzunarekin batera, gizarte zibilean ere hainbat erantzun antolatu dira. Elkarrizketetan sarritan adierazi da indarren asimetria dagoela, alde batetik, alde nazionalaren eta enpresen boterearen eta, bestetik, tokiko ekimenen artean. Enpresak dituen baliabide izugarrien aldean, gizarte zibila eskura dituen baliabide apurrekin antolatu behar da. Gainera, asimetria horretan eragiten duen arazo bat da biztanleek beren interesen, ingurumenaren eta lurraldearen alde mobilizatzeko duten irregularitasuna edo jarraikortasun eskasa. Alde batetik, azpimarratu da erakundeak motel samarrak izan direda meatze enpresaren presentziari erantzuteko orduan. Bestalde, ez da adostu erantzuna nola gauzatu. Ildo horretan, koordinaziorako eta kohesiorako zailtasunak aipatzen dira. Hori bereziki garrantzitsua izan da proiektuak gehien ukitzen dituen «veredetan» (Montclar eta Pueblo Viejo); izan ere, leku horietan komunitate lan handiagoa egin balitz,

agian, biztanleria hobeto antolatuko zatekeen eta, ondorioz, erantzun artikulatuagoa emango zukeen.

Antolaketari buruzko alderdi bat interes berezikoa da tokiko biztanleen erantzun eta erresistentzietarako: nazioko eta nazioarteko erakundeekin edo sareekin lotzea. Beste erakunde batzuekin sarean lan egitea hobea eta eraginkorragoa izan daiteke erantzuteko orduan, eta helburuak lortzeko giltzarritzat jotzen da. Horrek eragina du arbuioaren oihartzunean, eta erantzun eta erresistentzietarako baliabide finantzario eta teknikoak lortzeko orduan.

Azkenik, elkarrizketetan argi geratu da komunitate indigenek zeregin garrantzitsua dutela meatzaritza proiektuekiko erresistentziaren antolaketan. Sentipen kolektiboak artikulazio eta mobilizazio maila handiagoa ematen die, tokiko gainerako biztanleekin alderatuta. Horretaz gain, komunitate indigenek duten aitorten instituzionala nabarmentzen da, lan honetan zehar argi islatu denez. Arauen eta erakundeen aitorten horrek erantzuteko mekanismo espezifikoak aurreikusten ditu. Komunitate indigenen beste elementu bereizgarri bat nazio mailako beste erakunde eta sare indigena batzuekin artikulatzea da⁹, eta horrek eragin positiboa du aurreko paragrafoan adierazita-koaren ildotik.

Indigenatzat jotzeak lehen ere ikusi ditugun aitorten batzuk dartzat. Besteak beste, «resguardo»en autonomia eta aitortpena, aurretiazko kontsulta eta herri indigenen baimena. Elementu horiek meatze proiektuekiko erantzun eta erresistentzia modu gisa sortzen dira, eta elkarrizketetan ere aipatu dira kualitatiboki garrantzitsuak diren mekanismo bezala. Baliabide horiei kontrajarrita, erakundeek erantzun egokirik eman ez izanaren ondoriozko kezka batzuk ere nabarmentzen dira. Adibidez, enpresek behar bezala jardun ez eta meatze proiektuekin aurrera jarraitzen dutenean. Bestalde, herri eta erakunde indigenen erresistentzia lanaren mugatzaile gisa, gizarte zibil osoan bezala, komunitate barruko gatazkak ere sortzen dira jarraitu beharreko estrategiei buruz, proiektu horietatik baliabideak lortzeko aukera dagoelako eta beharrian desberdinak daudelako, norberaren bizi baldintzen arabera-koak.

⁹ Adibidez, Kolonbiako Amazonian, eskualde horretako sei departamenduetan ekintzak antolatzeko eta lankidetzak ezartzeko sare bat dago.

4. Ondorioak

Bertako biztanleek meatzaritzaren inguruan, oro har, eta Libero Cobre enpresaren proiektuaren inguruan, bereziki, dituzten irizkiak eta jarrerak zatituta daude. Alde batetik, eskualdearen garapen ekonomikorako eta bertako biztanleentzat enplegua sortzeko aukera gisa ikusten dutenak daude, gaur egungo baldintza sozio-ekonomikoak kontuan hartuta. Aitzitik, beste pertsona eta kolektibo batzuek proiektu mota horiek epe laburrean eta luzean ingurumenean, gizartean eta ekonomian izan ditzaketan ondorio negatiboak azpimarratzen dituzte. Horiek dira meatzaritzako proiektuen kontra mobilizatzeko prozesuekin lotuta daudenak, eta Putumayon eta Kolonbiako beste leku batzuetan izandako esperientzietan oinarritzen dira.

Beste iritzi eta posizionamendu mota batzuk identifikatu dira. Sektore batzuk proiektuaren alde agertzen dira, pentsaturik proiektuak duen indarrarekin (enpresaren baliabideengatik eta nazio mailako laguntzagatik), ekimenak aurrera egingo duela eta, beraz, egokiena dela norabide berean arraun egitea, etekinak (banakakoak) lortzeko aukera ez galtzeko. Meatze ustiapenaren ekimena zuzenean babesten dutenekiko aldea da etsipenez jartzen direla proiektuaren alde, saihestezina iruditzen zaielako, ez benetan uste dutelako garapenerako aukera dela. Horrek zerikusia du proiektuaren sendotasunarekin eta haren aurka daudenekiko asimetriarekin.

Botere asimetria erakundeetan mailan ere ikusten da, gobernu nazionalaren eta udal gobernuaren jarreraren artean dauden tentsioetan. Eskumen arazoek, administrazio batzuen eta besteen errekurtsioekin zerikusia duten auziek, eta sektore batzuekin (inbertitzaileak, enpresak) eta beste batzuekin (tokiko biztanleak, herritarrak) dituzten harremanek eragina dute gobernu bakoitzak jokatzeko duen paperean. 2018ko 020 Erabakiaren onarpenaren ondorioz sortutako gatazka eta udal gobernuaren papera 2023ko udal hauteskundeetan ebatziko da. Gaur egungo zatiketa politikoa eta tokikoa, seguruena, areagotu egingo da, meatze proiektuak udalerrian duen presentziaren ondorioz. Gobernu nazionalaren aldaketa eta trantsizio energetikoari eta energiaren deskarbonizazioari buruzko kabinete berriaren diskurtsoa baliatu ditu enpresak bere proiektuaren alde argudiatzeko.

Kontu instituzional horiek guztiak gertutik jarraitu beharko dira, proiektua moteltzen edo baztertzen duten ikusteko. Oraingoan, meatzetxe enpresen presentziari erantzuteko eta aurre egiteko mekanismo indartsuenetako bat herri indigenekin lotutako sektoreetatik sortu dena da, bai eta gizarte erakundeek lurraldea babesteko sare nazional eta nazioartekoekin batera lan eginda. Kolonbiako Estatuak lurraldea babesteko arauz onartutako mekanismoek erantzunak artikulatzeko aukera ematen dute. Hala ere, erantzunak indartuta ateratzen dira gizarte erakundeen arteko elkarlana egonez gero (tokikoa, nazionala, nazioartekoa).

Azkenik, funtsezkoa da erresistentzia bideak antolatzea indigenen bizi planek dakarten ekintza-aukeretatik eta proposamen politikotik abiatuta. Hori dela eta, ingurumenerako garrantzitsuak diren guneak (Amazonia, kasurako) babesteko, funtsezkoa da nazioko eta nazioarteko aliantzak eraikitzea, lurraldea defendatzeko eta aldarrikatzeko bide emango duten auzi estrategikoetarako moduak eta jardunbideak artikulatu ahal izateko. Hori guztia arau-aitorpenarekin bat etorrita, Kolonbiako barne legerian edo Nazioarteko Zuzenbidean gertatzen den bezala, edo Amazoniako beste eremu batzuetan hainbat herri indigenak egin izan duten bezala. Ildo horretan, funtsezkoa da lurralde indigenen aitopeneak eskaintzen dituzten aukeretatik abiatuta egituratutako erresistentzia indigenaren praktikak serio hartzea.

Bibliografia

- Arellano-Yanguas, J. (2011). *¿Minería sin fronteras? Conflicto y desarrollo en regiones mineras de Perú*. IEP eta PUCP.
- Cayón, L. eta Turbay S. (2008). Discurso chamánico, ordenamiento territorial y áreas protegidas en la Amazonía colombiana. *Journal of Latin American Anthropology*, 10. libk., 1. zk., 88-125
- Escárzaga, F. eta Pinto, L (2020). Procesos de reconstitución comunitaria. En la defensa del territorio contra el extractivismo en América Latina. Ciudad de México, UAM.
- Fernández Maldonado, Guillermo. (2022). El Derecho a La Protesta Social Y La acción De Las Naciones Unidas. *Revista Deusto De Derechos Humanos*, 10. zk. (abendua), 27-54.
- Garavito, C (2019), Respuesta de los 25 accionantes respecto del cumplimiento que las entidades accionadas han dado a las órdenes impartidas en

- la sentencia STC 4360 de 2018 proferida por la Corte Suprema de Justicia el 5 de abril de 2018. Radicado No. 11001220300020180031900, hemen eskuragarri: <https://www.dejusticia.org/wp-content/uploads/2019/04/5-de-abril-de-2019-Respuesta-de-los-25-accionantes-respecto-del-cumplimiento-que-las-entidades-accionadas-han-dado-a-las-%C3%B3rdenes-impartidas-en-la-sentencia-STC-4360-de-2018.pdf>
- García Linera, A. (2012). Geopolítica de la Amazonia. Poder hacendal, patrimonial y acumulación capitalista. Bolivia. Vicepresidencia del Estado Plurinominal-Presidencia de la Asamblea Legislativa Plurinacional.
- Guio, C. eta Rojas, A. (2019). Amazonía colombiana. Dinámicas territoriales. Ideas verdes. *Análisis político*, 22. zk.. Bogotá. Fundación Heinrich Böll.
- Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas (2015). Estado del arte de la minería en la frontera sur de Colombia. Diagnóstico de extracción minera en la región colombiana de frontera con Perú y Ecuador. Primer informe Convenio 495 MADS-Sinchi. Bogotá. Sinchi.
- Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas (2018). Títulos y solicitudes mineras en la Amazonia colombiana. Bogotá. Sinchi.
- Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas (2019). Minería. Impactos sociales en la Minería. Bogotá. Sinchi.
- Kröger, M. (2021). *Iron will: Global extractivism and mining resistance in Brazil and India*. University of Michigan Press.
- Martínez Alier, J. (2015). Ecología política del extractivismo y justicia socio-ambiental. *Interdisciplina*, 3(7), 57-73.
- Martínez de Bringas, A. (2021). Selva viviente. El corazón de la autonomía Kichwa en Sarayaku. REAF-JSG, 38, 85-111.
- Martínez de Bringas, A. (2018). Autonomías indígenas en América Latina. Una mirada comparada a partir de las dificultades para la construcción de un derecho intercultural. REAF-JSG 28, abendua, 101-138.
- Orihuela, J. C., Cavero, C. P., & Contreras, C. (2022). Extractivism of the poor: Natural resource commodification and its discontents. *The Extractive Industries and Society*, 9, 100986.
- Salazar, C.A. eta Reyes, M. (2015). Minería en la Amazonía. Bogotá. Instituto Amazónico de Investigaciones Científicas.
- Uprimny, Rodrigo. (2022). El «estallido Social» colombiano: Reflexiones Sobre Protesta Y Derechos Humanos En Democracias débiles. *Revista Deusto De Derechos Humanos*, 10. zk. (abendua), 133-59.
- Walter & Wagner. (2021). Mining struggles in Argentina. The keys of a successful story of mobilisation. *The Extractive Industries and Society*, 8. libk., 4. zk.

Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalaren epaiak

SU-039 epaia, 1997koa.

C-141 epaia, 2001ekoa.

SU-383 epaia, 2003koa.

T-737 epaia, 2005ekoa.

C-030 epaia, 2008koa.

C-175 epaia, 2009koa.

T-769 epaia, 2009koa.

T-547 epaia, 2010ekoa.

T-129 epaia, 2011koa.

T-163 epaia, 2011koa.

T-01 epaia, 2019koa.

Giza Eskubideen Amerikarteko Gortearen epaiak

Corte Interamericana de Derechos Humanos. Caso de la Comunidad Mayagna (Sumo) Awas Tingni Vs. Nicaragua. Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia de 31 de agosto de 2001. Serie C No. 79.

Corte Interamericana de Derechos Humanos. Caso Comunidad Indígena Yakye Axa Vs. Paraguay. Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia de 17 de junio de 2005. Serie C No. 125.

Corte Interamericana de Derechos Humanos, Caso Comunidad Moiwana vs. Surinam. (Excepciones Preliminares, Fondo, Reparaciones y Costas). Sentencia de 15 de junio de 2005, Serie C No. 124.

Corte Interamericana de Derechos Humanos. Caso del Pueblo Saramaka Vs. Surinam. Interpretación de la Sentencia de Excepciones Preliminares, Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia de 12 de agosto de 2008: Serie C No. 185.

Corte Interamericana de Derechos Humanos, caso Pueblo indígena Kichwa de Sarayaku vs. Ecuador, 27 de junio de 2012

Ondorioak

Duela urte batzuetatik, badakigu deskarbonizaziorako beharrezko trantsizio energetikoak, ezinbestean, mineralen erauzketa areagotzea dakarrela. Areagotze horren zenbaterainokoa oraindik ez da zehaztu; hala ere, dagoen teknologiarekin, badakigu ekoiztako energia unitate bakoitzeko 3-6 aldiz kobre gehiago behar dugula. Beste mineral kritiko batzuetan, hala nola molibdenoan, litioan, kobaltoan eta nikelean, hazkundearen proportzioa are handiagoa da, nahiz eta guztizko bolumenak txikiagoak izan (World Bank, 2020). Izan ere, kobrearen erabilera maila globalean 17,8 milioi tonatik (2009an) 25 milioi tonara (2019an) igo zen, eta datozen hamarkadetan eskaera globala produkzio ahalmena baino azkarrago haztea espero da (S & P Global, 2022). Ekoizpen handiago horrek ingurumen eragin handiagoa dakar. Kalkuluen arabera, 2000 eta 2050 urteen artean, kobrearen meatzaritzak xx. mende osoan baino 9 aldiz ganga gehiago sortuko du (Goldman Sachs, 2022).

Erauzketaren hedapen fase hau aurretik meatze tradizioz izan ez duten lurraldeetara eramaten ari da miaketa eta erauzketa jarduerak. Horixe da Amazoniaren kasua: hainbat eragiketa planifikatzen ari dira bertan, bereziki Andeetako mendietako arroen goi-ibarretan. Tipologia horretakoak dira ikerketa honetan aztertutako bi kasuak.

Txosten honetan, Amazoniako eskualdeko meatze ustiapena ingurumenarekin eta tokiko herriekin modu baketsuan bizitzeko zailtasun handiak daudela egiaztatu dugu. Lehen kapituluan, inpaktuen analisiak

agerian utzi ditu erauzketa ekologikoki, sozialki eta politikoki bideragarri egiteko dauden zailtasun objektiboak. Gainera, kapituluak erakusten duenez, enpresek eta gobernuek meatzaritzako ustiapen planak aurrera eraman nahi dituzte herritarren iritziaren aurka, eta horrek arazo sozial eta politiko larriak sortzen ditu, baita sufrimendua eta giza bizitzaren kostua ere, denak saihesteko modukoak. Eragin negatibo horietako asko ez dira berriak, ezta Amazoniarenak bakarrik ere. Nahiz eta meatzaritza enpresek behin eta berriz aldarrikatu ingurumenari ekarpenak egiten dizkiotela eta tokiko biztanleekin harreman positiboak izan nahi dituztela, zantzuek ez dute pentsarazten meatzaritzak datozen urteetan izango dituen inpaktuak azken hamarkadetakoa ez bezalakoak izango direnik. Hori horrela da enpresak berak direlako, langileak antzekoak direlako eta eskola berberetan prestatu direlako, legeak eta araudiak ez direlako asko aldatu, eta gobernuek interes berdina edo handiagoa dutelako baliabideak ustiatzeko.

Ziurrenik aurrerantzean ere gertatuko diren eraginen artean, aipatzekoak dira giza eskubideei buruzkoak, eztabaidarako gune zibikoa egotea eta ingurumenaren defendatzaileen egoera.¹

Azken urteotan, ingurumenaren defendatzaileek jazarpen handia jasan dute. Global Witnessek dio astero lau defendatzaile hiltzen dituztela. Meatze eragiketa potentzialen aurkako jarrera da jazarpen gehien eta hilgarrienetakoa izan duen testuinguruetako bat (Global Witness, 2022). Askotan, jazarpenak ez dakar indarkeria fisikorik, baizik eta legezko ekintzak aurkarien ekintza deuseztatzeko eta haien ahotsak isilarazteko. Auzi estrategikoa (ingelesez SLAPP, Strategic lawsuit against public participation) da estrategiarik ohikoena. Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Informazio Zentroak 355 SLAPP kasu identifikatu zituen 2015 eta 2021 artean, eta haietatik 108 kasu (%30) meatzaritzaren sektorearekin lotuta zeuden (Zuluaga & Dobson, 2021). Zifra global horiek lagungarriak dira Afrodita Meatze Konpainiaren eta Mocoa proiektuaren kasuen azterketa kokatzeko.

Bi kasuetan, enpresaren jardueraren aurkariak Estatuaren eta enpresen arteko interes eta konplizitate sare garrantzitsu bati egin behar

¹ Argumentu hauek Anthony Bebbingtonek 2022ko irailaren 27an Deustuko Unibertsitatean egindako hitzaldi batean oinarrituta daude. Hitzaldia txosten hau ere jasotzen duen proiektuaren barruan eman zen. Edukia hemen dago jasota: (Bebbington, 2023).

diote aurre. Mocoa proiektuaren kasuan, berrikuntza bat aurkitzen dugu: narratiba bat dago dioena 2030. urtea baino lehen meatzaritzak CO2 isuriak murrizteko ekarpena egingo duela, beroketa globala 2 gradu zentigradutik gorakoa izan ez dadin. Premiaren zentzu hori da tokiko komunitateen eskubideen murrizketa justifikatzeko oinarria. Narratiba horiek, bestalde, interes orokorreko arrazoiak direla-eta proiektu jakin batzuk inposatzeko ere erabil daitezke, eztabaidarako espazioak itxiz eta tokiko biztanleen eskubideak murriztuz; izan ere, sarritan, haien kopuru txikia eta sakabanaketa direla eta, ez dira gai horrelako logika autoritarioei aurre egiteko.

Testuinguru horretan, txosten honen bigarren kapituluak agerian uzten du tokiko komunitateen eskubideak aitortzea garrantzitsua dela bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, eskubide horiek aitortuz eta errespetatuz soilik hitz egin daitekeelako justiziaz, baita trantsizio energetikoaren testuinguruan ere. Bigarrenik, eta ikuspegi pragmatiko batetik, bi ebidentzia mota daudelako eskubide horiek aitortzeak baliabide naturalen kudeaketa eraginkorragoa lortzen laguntzen duela frogatzen dutenak: (i) basoak hobeto zaintzen dira Amazoniako komunitateek, batez ere indigenen komunitateek, lurraldearen kontrolerako eta autogobernurako eskubideak dituztenean (Science Panel for the Amazon, 2021); eta (ii) eskubideen urraketak nahi ez diren eragiketen garapena geldiarazten duten gatazkak ekarri ohi ditu, baina baita bideragarriak izan daitezkeen eta energiaren sorkuntza deskarbonizatzen eraginkortasunez lagun dezaketen beste batzuk ere (Bebbington, 2007).

Meatzaritzako eragiketek kaltetu ditzaketen Amazoniako populazioen eskubideak errespetatu ahal izateko, eskubide horiek exijitzeko moduko arauetan finkatzeaz gain, gutxienez bi gauza behar dira. Lehenik eta behin, tartean dauden eragileen arteko aliantza politikoak eraikitzea, eta onartzea batzuetan askotariko interesak izan ditzaketela, baita elkarren aurkakoak ere. Horretarako, espazioak eraiki behar dira, tokiko biztanle talde ezberdinak, gobernu maila desberdinetako agintariak, Estatuko erakundeak eta ingurumena babesteko erantzukizuna duten zerbitzari publikoak aske elkartu eta mintzatu daitezzen. Bigarrenik, argi eta garbi eztabaidatu behar da nork hartu behar dituen bere gain bidezko trantsizio energetiko baten kostu ekonomikoak, eta, beraz, tokiko populazioei inposatuko ez zaien eta ingurumena suntsituko ez duen meatze ustiapen arduratsu baten

kostuak. Gobernuak, kontsumitzaileek, batez ere Iparraldekoek, eta meatzaritza eta energia sektoreetako enpresek dute, dugu, hori egiteko erantzukizun gorenarekin.

Bibliografia

- Bebbington, A. (2023). *Just energy transitions and mining*. Oxford: Laudato Si Research Institute.
- Bebbington, A. (Ed.) (2007). *Minería, movimientos sociales y respuestas campesinas: una ecología política de transformaciones territoriales*. Lima: Instituto de Estudios Peruanos.
- Global Witness. (2022). *Una década de resistencia: diez años informando sobre el activismo por la tierra y el medio ambiente alrededor del mundo*. Washington: Global Witness.
- Goldman Sachs. (2022). Green metals: copper is the new oil. Hemendik hartua: <https://www.goldmansachs.com/insights/pages/copper-is-the-new-oil.html>
- S&P Global. (2022). The future of Copper: will the looming supply gap short-circuit the energy transition? Hemendik hartua: <https://www.spglobal.com/marketintelligence/en/mi/Info/0722/futureofcopper.html>
- Science Panel for the Amazon. (2021). *Chapter 10: Critical interconnections between the cultural and biological diversity of Amazonian peoples and ecosystems*. New York: United Nations Sustainable Development.
- World Bank. (2020). *Minerals for climate action: The mineral intensity of the Clean Energy transition*. Washington: World Bank.
- Zuluaga, N., & Dobson, C. (2021). *SLAPPed, pero no silenciados: defendiendo los derechos humanos de cara a los riesgos legales*. Londres: Centro de Información sobre Empresas y Derechos Humanos.

